

ASTELEHENEKO Goienkaria

2008ko otsailaren 4a > Astelehena > IV. urtea > 176. zenbakia > Euro 1

www.goiena.net

"Gure kale-argiztapen produktua, sinplea da, eta hori da gakoa"

Jon Santacoloma
Industri diseinugilea
> 09



ARRASATE
Erdi Aroko Azoka maiatzaren 24an eta 25ean egingo dute > 10

ESKORIATZA-ARETXABALETA
Bi neskek dantzatzeko dute aurten lehenengo aldiz kinto moduan > 13

OMENALDI PARTIDUA
Athletci-eko beteranoek Antzuolakoei irabazi zieten > 17

PUNK-ROCKA
UK Subs eta Vibrators taldeek gogoz jo zuten 3.60 aretoan > 27

KONTSUMOA > ETIKETATZE BERRIA

Elikagaien etiketak aldatu nahi ditu Europako Batasunak

ARAUAK Europako Batzordeak proposatzen du produktuen eduki nutritzaileari buruzko informazio arauak aldatzea

ZEHAZTU Ekoizleek kaloria, azukrea, gatza eta gantz kopurua zehatz dezaten nahi du Europako Batzordeak

IRITZI ONA Ibarrean, gaitz jakin batzuk dituztenek eta elikaduran adituek ondo ikusiko lukete arauak aldatzea > 02-03

ARRASATE > KULTURA

Arrasateko 25 talderen diskoa

'25 hits of Mondra' diskoa aurkeztu eta salgai jarri dute dagoeneko > 24

G2a

Lehiaketak, mozorro originalak, dantzak eta parranda, gurean nagusi

Debagoieneko herri guztietan ospatu dituzte asteburuan Aratusteak. Denetarik ikusi ahal izan da, ohiko mozorrotatik hasita originaletaraino; herri guztietan arrakasta izan duen mozorroa piratena izan da. Haur, gazte zein heldu, adin guztietako jendea ikusi ahal izan da mozorroak soinean. Eguraldi hotza izan arren, barruak berotzeko bestelako moduak asmatu zituzten herritarrek: dantza, kantua, jaja eta parranda. > 21



IRABAZLEAK Mozorro onenaren saria goiko koadrilak irabazi zuen Aretxabaletan: *playboy* neskek cadillac-ean.

AITZIBER ARANBURUZABALA

AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-05
Elkarrizketa > 06
Iritzia > 07-08
Herriak > 09-14
Kirola > 15-20
Kultura > 21-27
Sailekuak > 28
Irrati-Telebista eta Hitzorduak > 29
Berri-zakua > 30-31
Azkena > 32

ZERBITZUAK > HILTEGIA

"Hiltegiaren alde egin gura dugu"

Oñatiko abere hiltegiaren gaineko batzarra egin zuten egubakoi-tzean hainbat erakundetako ordezkariak. Pedro Iturbe Man-komunitateko Hiltegi batzordeko presidentek dio erakunde horrek "hiltegiaren aldeko apustu garbia" egin gura duela. > 04

ELKARTASUNA > SAHARA

Sahararrendako 12 tona produktu batu dituzte

Zapatuan kargatu zituzten kamioiak Debagoienean Saharara bidaltzeko batu diren produktuekin. *Piztu Itxaropena* elkartasun kanpainaren barruan, 12 tona produktu batu dira Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Antzuola, Elgeta, Eskoriatza eta Oñatin. Arroza, lekaleak,

atun latak, azukreak eta konpresak batu dituzte. Ekarpen bereziak ere egin dituzte hainbat talde eta norbanakok.

Produktuak Arrasatetik Bilbora eraman zituzten zapatuan, eta otsailaren 16an abiatuko da Euskal Karabana Tindouf-eko errefuxiatu kanpamenduetara. > 04

KIROLA > TXAPELKETA

Bi irabazle Boulder Txapelketan

Jon Agirre oñatiarrak eta Asier Etxeberrria hernaniarrak berdindu egin zuten Oñatiko III. Boulder Txapelketan, zapatuan, eta biak txapelkun izan ziren. Txapelketa giro bikainean jokatu zen, izan ere, Zubikoako ohiko eskalatzailerek jardun zuten. > 15

KONTSUMOIA > ETIKETATZE BERRIA

Europako Batasunak edarien eta elikagaien etiketatzea aldatu gura du

AURREPROIEKTUA Europako Batzordeak produktuen etiketatzearen arauen gaineko aurreproiektua aurkeztu zuen joan zen astean

EDUKI NUTRITZAILEAK Eduki nutritzaileen gaineko informazioa zehaztea proposatzen du horrek: kaloria, azukre, gatza eta gantz kopurua

EDARI ALKOHOLDUNAK Alkohola duten edarietan kaloria kopurua bakarrik azaltzea eztabaidatzen ari da orain Europako Batzordea

MIRIAN BITERI > BERGARA

Europako Batasunak elikagaien eta edarien etiketatzearen gaineko arauak aldatu nahi ditu. Hortaz, Europako Batzordeak aurreproiektua aurkeztu zuen joan zen astean. Proposamen horrek, alde batetik, elikagaien etiketatzearen gaineko arau orokorretan eragina izango du. Beste batetik, eduki nutritzaileari buruzko informazioari ere eragingo dio. Horren harira, ekoizleek kaloriak, azukrea, gatza eta gantzak produktuen ontzien aurrealdean zehaztu ditzaten proposatu du Europako Batzordeak.

Jakina denez, gaur egun ere, produktuak etiketatzerantz derriortuta daude ekoizleak. Baina, osagai kopuruaren arabera jarri behar dituzte: handienetik txikienera, hain zuzen. Eduki nutritzaileak jartzea, bestalde, ez da derriortuzkoa egun, ekoizle batzuek jartzen badituzte ere.

Egitasmoaren zirriborroak azaltzen du "dieta orekatua aukatzean, etiketatzea kontsumitzaileen trebetasuna indartzeko tresna egoki gisa" erabili daitekeela. Hori dela-eta, edari alkoholodunek kaloria kopurua bakarrik zehaztea aurreikusten du. Beraz, ekoizleek ez dute gatza, azukre eta gantz kopururik azaldu beharko.

HITZ TXIKIRIK EZ

Plan horren zirriborroak, gainera, etiketatzearen erabili behar diren letra tipoen gutxieneko tamaina zehaztu gura du, produktuen gaineko informazioa "argi eta garbi" azal dadin. Horrez gain, aurreenbasatuta ez dauden produktuetan alergenoko diren edo alergiak eragin ditzaketen osagaiak dituzten zehaztera derriortu nahi ditu ekoizleak.

Europako Batzordeak joan zen eguaztenean aurkeztu zuen egitasmo hori. Orain Europako Batasuneko kide diren herrialdeekin negoziatu beharko du. Hori aurrera atera ahal izateko, sektoreetako enpresen presioei aurre egin beharko dio eta bereziki, alkohol ekoizleei. Hala, etiketatze legeriak elikagai eta edariei



ETIKETATZEARI BEGIRA Irudian, kontsumitzaile bat produktu baten etiketatzea begiratzen, Bergaran.

JOSETXO ARANTZABAL

eragiten badie ere, Europako Batzordeko zerbitzuak aztertzen ari dira ardoa eta garagardoan ere nutrizioaren gaineko informazioa jarri behar den edo ez.

ARDOA

Europako hamar herrialdek dagoeneko eman dute bere iritzia horren gainean. Ardoa araudiaren berrikuspenetik kanpo gera dadila eskatu dute. Edari hori egiteko errezeta bat baino gehiago erabiltzen direla arrazoitu dute horretarako. Horrez gainera,

Europako hamar herrialdek ardoa araudiaren berrikuspenetik kanpo gera dadila eskatu dute

erregulazio gehiegi jasaten dituen produktu bat dela ere azpimarratu dute. Egitasmoa aurrera ateratzea, beraz, ez da erraza izango.

ERREAKZIOAK

Proiektu horren gaineko lehenengo erreakzioak jarraian heldu dira. Euskadiko Kontsumitzaileen Elkargoak, orokorrean, ondo hartu du Europako Batzordeak aurkeztutako aurreproiektua. Kontsumitzaileak eskuan duen produktuaren gaineko informa-

zio gehiago jasoko duela azpimarratu du Euskadiko Kontsumitzaileen Elkargoko presidente Jon Ariñok: "Informazioa izatea ona da beti".

Etiketatzeko egokia izatea kontsumitzailearendako zein ekoizlearendako onuragarria dela ere aipatu du. Produktua bera gortzeko balioko duela uste du Ariñok. Hala, balio erantsia emango diola gaineratu du. Erosleen konfiantza ere bereganatzeko tresna ona izan daitekeela aipatu du. Kontsumitzaileendako ere

Euskadiko Kontsumitzaileen Elkargotik ohartarazi dute ez dakigula etiketatzeak behar bezala irakurtzen

Gaixoei erosten laguntzeko ona izan daitekeela dio Diaz de Monasterioguren nutritzaileak

ona izan daitekeela aipatu du: "etiketatze egokia izateak produktu segurua dela eta arautua dagoela islatzen du".

BIZI-AZTURA OSASUNGARRIAK

Norberaren beharretara egokitzen den produktua den edo ez jakin ahal izateko lagungarria izan daitekeela ere esan du. "Kontsumitzailearendako tresna eraginkorra izan daiteke, erosketa bizi-aztura osasungarri eta dieta orekatua egiteko irizpideen arabera egiteko. Erosketak eta elikagai osasungarrien kontsumoak osasunean duten garrantziaz jabetzeko ere balioko du", adierazi du Ariñok.

Hala ere, kontsumitzaile gehienek etiketatzeak ez dituztela behar bezala irakurtzen ohartarazi du eta beraz, hori ikasi beharra dagoela gaineratu du. "Etiketen hizkuntza gero eta



EDARI ALKOHOLDUNAK Alkohola duten edariak araudi horretatik kanpo gera daitezke.

JOSETXO ARANTZABAL

gehiago baloratzen badugu ere, oraindik iraungipen-datari kasu gehiago egiten diogu", azpimarratu du.

'LOBBY'-AK

Azkenik, edari alkoholodunak araudi horretatik kanpo utzi gura izatea kritikatu du Euskadiko Kontsumitzaileen Elkargoko presidentek: "Europako Batasuneko lobby-ak gogor saiatzan ari dira aspaldian alkohola duten edariak etorkizuneko arauditik kanpo uzten. Hori ez dugu ondo ikusten".

NUTRITZAILEARENDAKO, "IDEALA"

Amaia Diaz de Monasterioguren nutritzaile oñatiarrak ere gustuko du Europako Batzordeko aurreproiektua. "Ideala da. Jaten duguna gara eta askotan, produktuak erosterakoan, prezioa bakarrik begiratzen dugu. Ez diogu behar beste garrantzirik ematen eta hori aldatu beharra dago", uste du. Produktu bakoitzak funtzio zehatza duela dio eta beraz, "bakoitzak dituen osagaien gaineko informazioa jasoa behar dugu. Orain arte askotan zer jaten dugun ez dugu jakin izan".

Hala ere, azken urteetan gero neurri gehiago hartzen ari direla onartu du. Hasieran, publizitate iruzurtia kentzeko araudia onartu zela gogora ekarri du. "Esaterako, telebista iragarki batean produktu bat argaltzeko edo gaztetzeko balio zuela esatea debekatu zuten". Ondoren, produktuaren gaineko informazioa eskaintzen zuen etiketa jartzea agindu zen eta orain, horren moldaketa dator.

GAIXOENDAKO EGOKIA

Gaixotasunak dituzten pertsonen ere erosketak "errazago" egingo dituztela uste du. Bada, gaixotasun konkretu batzuk dutenek txikitatik ikasi dutela esan du nutritzaile oñatiarrak: "Gaixotasun bat daukazunean badakizu zer jakin behar duzun. Horiek espezialistak dira erosketak egiten. Zeliako batek, adibidez, txikitatik jakin behar du glutenik ezin duela jan; produktuek darमतततततत zigilu baten bidez daki- te zerbait jan behar duten edo ez".

Diabetesa edo kolesterola dutenendako, bestalde, etiketatze berria oso lagungarria izango

dela aipatu du. Lehenengoak jakingo duelako produktu batek zenbat azukre eta zer motatako azukrea duen. Kolesterola altua dutenek, berriz, gantz kopurua eta hori "txarra edo ona" den jakiteko aukera izango dute.

TREBETASUNA

Hala, Diaz de Monasterioguren ustez, "arazoa osasuntsu gaude-nok dugu. Aurrerantzean trebetasuna hartuko dugu erosten eta aukera izango dugu dieta orekatua egiteko. Gu ere espezialistak izan behar gara erosten. Gosariko zerealek uste duguna baino azukre gehiago dute, opil industrialek gantz saturatu gehiegi eta esneki batzuek esne-gain larregi dute. Etiketatzeak horien gaineko informazioa emango du", dio.


Horren harira, etiketatzea ulertzeko ikastaroak antolatzearen aldekoa da. Gainera, gero eta diabetiko eta zeliako gehiago daudela ohartarazi du; baita kolesterola eta tentsioa altua dutenak eta gizenegiak daudenak. Horren aurrean, neurri gehiago hartu behar direla azpimarratu du Diaz de Monasterioguren.

GAIXOTASUNAK DITUZTENEN IRITZIA



Maitena Arana
Diabetikoa

Maitena Arana arrasatearra diabetikoa da. "Oso ondo" iruditu zaio elikagaietan eta edarrietan etiketatze berria jartzea. Joan zen urtean Edinburgon egon zen Arana oporretan eta hango produktu guztietan eduki nutritzaileak agertzen zirela gogora ekarri du. "Diabetikook anoaka jaten dugu, egunero kopuru jakin bat dugu. Pote bakoitzak anoaka kopurua zekarren eta etiketatzea begiratzearekin bakarrik, banekien zer jan behar nuen. Oso lagungarria da", azaldu du. Bestalde, diabetikoendako gomendagarriak diren produktuetaz ez dela fio esan du arrasatearrak. Azukrerik ez dutenak, hain zuzen. "Produktu kimikoak dituzte, okerragoak direnak", kritikatu du.



Arantzas Ampudia
Zeliakoa eta diabetikoa

Arantzas Ampudia gaztearen ama Ilargi Gomezekin hitz egin dugu. Alaba zeliakoa eta diabetikoa da eta etiketatze berriak mesede egingo diola uste du Gomezek: "Edozein tokitan erosi ahal izango ditugu produktuak, ez bakarrik belar dendetan". Horren harira, produktu horien prezioak gogor salatu ditu Gomezek: "Alabaren elikaduran dirutza uzten dut belar dendara joaten naizen bakoitzean". Supermerkatuetara zerbait erostera joaten denean, bestalde, "luparekin" joan behar dela dio eta gainera, produktuen osagaiak ez direla behar bezala zehazten aipatu du: "Letrak horren txikiak direnez ezin da irakurri eta gainera, ez dakizu umeak jaten duena ona den".

UGARTE

AROTZTEGIA-ALTZARIAK

arotz lanak orokorrean • horma-armairuak • altzariak • leihoak • atekak

altzari denda
ikerleku zeharbidea • bergara
tel.: 943 03 46 30

erakusketa eta tailerra
san juan 1A • bergara
tel.: 943 76 54 91 faxa: 943 76 08 04

ELKARTASUNA > SAHARA

Saharako herriarendako, hamabi tona produktu

Bailarako herri gehienetan egindako elkartasun kanpainan batutako materiala Saharako kamioietan kargatu zuten zapatuan, Arrasaten

MIREIA BIKUÑA > BERGARA

Iesbaa, Nubi eta Bubisher elkar- teek antolatutako *Piztu Itxaropena* kanpainaren barruan 12 tona produktu batu da Debagoieneko herrietan. Hain zuzen, arrosa, lekaleak, atun latak, azukrea eta konpresak bildu dituzte mendebaldeko Sahara eta Argeliako Tindouf hirian dauden errefuxiatu kanpamenduetara bidaltzeko. "Oso gustura gaude herritarrek emandako erantzunarekin", azaldu digu Iesbaa taldeko kide Olaia Sagredok, "hasieran uste genuen ez genuela iaz beste material bilduko, bain aurreikuspenak bete egin dira".

Antolatzaile taldeak, eskertu ditu kanpainan parte hartu duten guztiak, bereziki eskolen lana.

DENDETAN ETA ESKOLETAN

Piztu Itxaropena kanpaina abenduaren 27an abiarazi zuten. Arrasateko, Aretxabaletako, Eskoriatzako, Oñatiko, Elgetako, Antzuolako eta Bergarako hainbat dendetan erosketarako orgak jarri ziren elikagaiak jasotzeko. Era berean, hainbat ikastetxetan, ikasleen bidez jaso zituzten elikagaiak. Guzti horiek kaxatan sartu eta zapatu goizean kamioietan kargatu zituzten.

Arrasaten kargatutako kamioietako materiala Bilbora eroan dute, Euskal Karabana otsailaren 16an Saharara abiatuko da-eta. Handik, Tinodufeko kanpamenduetara joango dira, hango lagunaren artean materiala banatzeko.



KAMIOIA Material jasotzeko kamioia zapatu goizean egon zen Arrasaten.

JOSETXO ARANZABAL

EKARPEN BEREZIAK

Saharako elikagaiez gain beste ekarpen batzuk ere jaso dituzte elkartasun taldeek. Besteak

beste, Arantzazuko eta Arrasateko fraideek eskolarako 80 mahai inguru eman dituzte. Etorkizunetan, Saharako emakumeek erabi-

liko dituzte eskola batean. Gainera, laguntza ekonomiko publiko eta pribatua jaso dute eta diruarekin elikagai gehiago erosi dute.

Batutako materiala, herriz herri

	ARROZA	LEKALEAK	ATUNA	AZUKREA	KONPRESAK	GUZTIRA
Aretxabaleta	237	220	94	1.349	39	1.939
Arrasate	1.440	1.094	540	993	196	4.263
Bergara, Antzuola, Elgeta	1.496	1.621	500	750	100	4.467
Eskoriatza	159	213	80	112	49	613
Oñati	373	444	154	379	84	1.434
Debagoiena	3.705	3.592	1.368	3.583	507	12.716

Pedro Iturbe > Mankomunitatateko Hiltegi batzordeko presidente

"Hiltegiaren etorkizunerako udalen laguntza behar dugu"

M.B. > OÑATI

Oñatiko abere hiltegiaren inguruko foroa egin zuten egubakoitzean, Oñatiko udaletxean. Mankomunitateko Hiltegi batzordeko presidente Pedro Iturberekin hitz egin dugu foroan aztertutakoaz.

Hasteko, zer moduz joan zen egubakoitzeko bilera?

Oso ondo. 35 bat lagun elkar- tu ginen, eta oso gustura gaude izan genuen erantzunarekin. Bileran egon ziren ordezkariak interes handia erakutsi zuten, eta pozik gaude.

Zeri buruz hitz egin zenuten?

Hasieran, aurkezpen txiki bat egin zuten, egun abere hiltegiek duten egoerari buruz. Hain zuzen, abelburuak nondik etortzen diren eta hil ondoren nora saltzen diren kontatu zuten.

EHNEko Eneko Karrera, Durangoko Erralde hiltegi-ko gerente Eneko Egibar eta Erraldeko Administrazio Kontseiluko kide eta Berrizko alkate Jabier Azpitartek egin zuten berba. Gainera, bertaratutakoek egindako galdera guztiei eran-

tzun zieten, eta haiek zituzten kezka guztien inguruko informazioa ere eman zuten.

Ze ondorio atera dituzue egubakoitzeko bileratik?

Bi ondorio nagusi atera genuen egubakoitzeko foroan: alde batetik, Oñatirako eskatzen dugun abere hiltegiaren moduko proiektuak, lana eginda, bideragarriak direla, posible direla; eta, beste alde batetik, abere hiltegiak behar-beharrezkoak direla; besteak beste, baserritarrei ematen dien zerbitzuarengatik eta ingurumenari egiten dioten mesedearengatik.

"Durangaldeko Erralde abere hiltegia erreferentzia izango da guretzat"

"Abere hiltegiak behar-beharrezkoak dira baserritarrendako eta ingurumenarendako"

Bileran Durangaldeko Erralde hiltegiari buruz hitz egin duzue. Zergatik?

Durangaldeko 14 udalen adostasunarekin, aldi baterako hiltegia antolatu dute. Eta guri oso interesgarria iruditzen zaigu proiektua, eta gainera, bideragarria da.

Era berean, asko gustatzen zaigu abere hiltegiak duen filosofia: baserritarrek saritzea eta harakinarekin tratua zuzenean egitea, besteak beste. Baina, halako proiektu bat Oñatira ekartzeko, aurretik, lana egin behar da.

Nolako etorkizuna du Oñatiko hiltegiak?

Mankomunitatean abere hiltegiaren aldeko apustu garbia egin dugu. Orain, Oñatiko hiltegia erabiltzen duten Debagoieneko, Debabarreneko eta Urola Garaiko udalei hausnarketarako tarte eskatu behar diegu. Abere hiltegiarekin aurrera jarraitu nahi duten udalen interesa norainokoa den jakin behar dugu. Duda barik, udalen inplikazio beharrezkoa da etorkizunari begira.



Pedro Iturbe.

GOIENKARIA

TURISMOA > FITUR AZOKA

Arrikruz eta Ignaziotar Lurraldea, Fitur azokan

Debagoieneko turismo arduradunek hiru egun eman dituzte Fiturren ibarra promozionatzen

Espainiako Kobazulo Turistikoaren Elkartearen kongresu aurkezpenean ere parte hartu zuten

LEIRE KORTABARRIA > BERGARA

Debagoieneko turismo arduradunak egubakoitzean ziren bueltan, Madrilen, Fitur turismo azokan, hiru egun eman eta gero, eta balorazio ona egin dute. Debagoieneko produktu berririk ez dute eraman, baina egon da berrietasunik: hala, Fitur aprobetxatuta, Kobazulo Turistikoaren Kongresua aurkeztu du ACTEK -Espainiako Kobazulo Turistikoaren Elkarteak-, eta Debagoienak, Arrikruz ordezkatzan, ere parte hartu zuen, beste kobazulo batzuetako arduradunekin. Aurten, ACTEK Kantabrian egingo du kongresua.

Horrez gain, dagoeneko eza-gunak diren produktuak eraman dituzte Debagoienetik Fiturrera Ernesto Murgiondo Mankomunitateko Turismo arduradunak, Iñaki Igartua Oñatiko turismo bulegokoak eta Ikerne Altube Oñatiko Turismo eta Garapen Agentziako arduradunak. "Aurrekoan bezala, Ignaziotar Lurraldearen gaineko informazioa eraman dugu; Debagoiena, Urola Garaia eta Urola Erdia hartzen ditu horrek. Bestalde, iaz, Eusko Jaurlaritzak Arrikruzeko kobak promozionatu zituen, baina iaz oraindik ez geneukan horren gaineko materiala; hor-



ARDURADUNAK Debagoieneko bi ordezkari, Ikerne Altube eta Iñaki Igartua, Gipuzkoako postuaren aurrean.

MANKOMUNITATEA

taz, aurten eraman dugu", azaldu digu Ernesto Murgiondok. Horrez gain, Oñatin eguna pasatzeko prestatu duten paketearen gaineko materiala eraman zuten, ibilbide historiko-artistiko-monumentalaren, Arrikruzten

eta Arantzazuren gaineko informazioarekin.

Jaurlaritzak EA Eren gaineko postua izan du; horren barruan, lurralde bakoitzak bere postua zeukan, eta Gipuzkoaren hegala- ren barruan zegoen ibarra.

INFORMAZIO ESKAERAK

Debagoieneko informazioa bila ere hurbildu da jendea. Murgiondok dioenez, "12 postu daude, eta datorren jendeak dagoeneko badaki zer ikusi nahi duen. Hala ere, jendea inguratu zaigu, bai".

KOOPERATIBA

MCC, energia sorkuntza industrian

Energia sortzeko sistema bat egiteko batu da atzerriko enpresa batekin

L.K. > ARRASATE

MCCk eta Zeelanda Berriko elektrizitate enpresa publiko Energy Limited-ek *joint venture* edo aliantza estrategikoa egin berri dute energia sortzeko sistema bat produzitzeko. WhisperGen izena du eta mikrosorkuntzako produktua izango da, eta Europako merkatuan zabalduko dute. Produkzio lantegia Euskal Herrian egongo da, eta berau diseinatzen ari dira.

ETXEKO GALDARA

WhisperGen sistema gasez elikatuko da, eta etxe bero-kuntza galdara gisakoa izango da, aldi berean elektrizitate-sarera joango den elektrizitatea sortuz.

Miren Arregi > Iratzarri gazte erakundeko kidea

"Gazteei ardura sortzen dieten gaien gaineko mahai-inguruak antolatuko ditugu"

L.K. > OÑATI

Aralarko Iratzarri gazte erakundeko kideek *Jarri zure ahotsa XXI. mendeko sozialismoari* delako kanpaina aurkeztu zuten joan den egue-nean Arrasaten. Tartean, Miren Arregi egon zen. Iratzarriko kide izateaz gain, Aralarko zinegotzi da Oñatiko Udalean, eta datozen hauteskundeetarako, Senaturako ordezkotako bat da Aralartik.

Zertan datza *Jarri zure ahotsa XXI. mendeko sozialismoari* kanpaina?

Euskal Herriko egoera zaila da, kritikoa, esango nuke, eta guk uste dugu gazteriak parte hartu behar duela. Guk esanda dugu demokrazia bahituta dagoela, ez dugula parte hartzeko eskubiderik eta ideiak kriminalizatu egiten direla herri honetan. Hortaz, gazteei esan gura diegu parte hartzeko, herri honen alde gauza asko dagoela egiteko, eta autodeterminazioaren alde lan egiteko, hortik dator-eta, gure ustez, Euskal Herriaren etorkizuna. Horretarako, eztabaida guneak sortu gura ditugu, hainbat gairen inguruan.



Miren Arregi.

GOIENKARIA

Zelako eztabaida guneak izango dira horiek?

Iratzarrik biltzar bidez funtzionatzen du. Guretako, garrantzitsua da ideia berriak eztabaidatzea denon artean, ekintza zuzena aurrera eramateko. Horrenbestez, batzarrak antolatzen hasi gara. Hala, orain dela bi bat aste, Bilbon, feminismoaren gaineko mahai-ingurua egin genuen, eta

oso esperientzia ona izan zen. Gehiago antolatuko ditugu eta gazte guztiek parte har dezakete.

Debagoienean, noiz izango dira batzar horiek?

Oraindik egitaraua prestatzen gabiltza, eta gertu dagoenean jakinaraziko dugu.

Gai jakinak izango dira?

Bai; aurrekoan feminismoa izan zen, eta hurrengo baten, izan daiteke ekologia, AHT bezalako proiektu handiak, hezkuntza, hizkuntza normalizazioa, etxebizitza... benetan, gaur egun, gazteei ardura sortzen dizkieten gaiak izango dira.

Bestela, zeintzuk dira Iratzarriren helburuak?

Ezker abertzaleko talde bat gara, independentziaren alde lan egiten duena, etorkizuna ezkerretik datorrela uste dugulako, eta ezkerreko politikak eta politika sozialak bultzatzea da gure helburua. Erakunde nahiko berria gara oraindik, baina gero eta jende gehiago hurbiltzen dabil guregana.

HAUTESKUNDEAK

Ibarreko bina, Aralar eta EAren zerrendetan

EAK eta Aralarrek zapatuan egin zituzten zerrenden aurkezpen ekitaldiak

A.G. > BERGARA

Espainiako Kongresurako hauteskundeetara begira, Eusko Alkartasunak eta Aralarrek euren zerrendak aurkeztu zituzten herenegun, zapatua. Zerrendetan, lau debagoiendar daude.

Eusko Alkartasunak Kongresurako proposatu dituen hautagaien artean, hirugarrena Amaia Larrañaga arrasatearra da. Senaturako zerrendan, Pello Urizar, arrasatearra ere, da bigarrena.

Bestetik, Aralarren zerrendetan, Espainiako Kongresurako hautagaietako bat Josu Zugasti arrasatearra da, bosgarrena; eta Senaturako, Miren Arregi oñatiarra ordezkotako bat da.

Jon Santacoloma Mondragon Unibertsitateko irakaslea da, eta irakasle jarduna industri diseinugilearen lanarekin bateratzen ditu. Berriki Espainiako AEPD06 Diseinu saria eskuratu du 'Kanpanzar' izeneko kanpo argiztapenerako proiektuarekin. Horretaz gain, diseinuhonekin, Estatuan eta mundu osoan sariak eskuratu ditu Santacolomak.

Jon Santacoloma > Industri diseinugilea

"Gure kale-argiztapen produktua oso sinplea da, eta horixe da gakoa"

MIREN ARREGI > ARRASATE

Bilbotarra da Jon Santacoloma, industri diseinuan aditua den Mondragon Unibertsitateko irakaslea. Ideilan industri diseinuko enpresaren sortzailea da eta berriki saritu diote kanpo argiztapenari dagokionean egin duen azken proiektua; *Kanpanzar* proiektuarekin Espainiako Diseinaren Profesionalen Elkarteak Industri Diseinuko AEPD 06 saria eman dio, nazioartean eskuratu dituen beste sari batzuen artean.

Industri diseinuan aditua zara. Zein da zure lana?

Nolabait, konponbideak ematen dituen profesional bat naiz, baina konponbide horiek, bai aurkeztu, bai komunikatu eta baita garatu egiten dituen. Ez da bakarrik zer egin behar den esatea, arazoei konponbidea emateko, edo produktuak hobetzeko, baizik eta hori guztia produktuetan fisikoki aurkeztu, garatu eta merkaturatu behar da. Diseinu industriala ez dira arte ederak, ezta ingeniariak ere. Bien artekoa da, bietatik jakin eta bietatik kudeatu behar dira proiektuak. Behar bati erantzun ona ematea da helburua. Hor dago diseinatzailearen lana. Marketinga jakitea ere garrantzitsua da. Edozein produktu izan daiteke industri diseinua; erloju bat, bitxi bat edo igogailu bat, produktu gama edozein izan daiteke. Eguneroko produktuak dira lantzen direnak. Enpresak mugimenduan ipintzen dituzten produktuak dira horiek, azken finean.

Kanpanzar izeneko kanpo argiztapenerako proiektua berriki saritua izan da.

B. Lux argiztapen taldearentzat egindako lana da. Urtebetetik gora generaman lanean. Egun batetan, Arrasatera bidean, Kanpanzartik pasatzen ari nintzela, pinu bat ikusi nuen eta hortik dator proiektuaren izena eta ideia. Pinu hori ondo zetorren gure ohiturak, oinarria, ingurunea, eta transmititu nahi genituen baloreak transmititzeko eta hori izan zen azken bultzada. Pinu itxurako argia da, beraz. Kanpo argiztapen proiektu hau mundu guztian ikusi daiteke. Produktua oso sinplea da, eta hori da gakoa. Kanpoan oso ondo dabilen produktua da eta piztuta zein itzalita egon, oztopo handirik suposatzen ez duena. Argiak pizten direnean, gainera, oso giro goxoa sortzen du. Bi dimentsiotako argiak izan daitezke: metro



Jon Santacoloma, *Goienkaria*-rako egindako argazkian. Bera da *Kanpanzar* kanpo argiztapenerako proiektuaren aita.

TXOMIN MADINA

eta erdikoak eta 80 cm-koak. Oinarriarekin edo oinarri barik joan daiteke. Gaineko partea tulipa txuri handi bat da, eta oinarria, hormigoizkoa. Material tradizionalekin egindakoa da. Oinarriak tradizioa islatzen du, eta tulipak, etorkizuna. Ingurune bereziak, goxoak eta erosoak sortzen ditu.

Kanpo argiztapenean, zure diseinua aitzindari da?

Uste dut diseinu desberdina dela, bai forma eta baita materialaren erabileraren aldetik ere. Halako argi iturriek, normalean, argi gehiegi edo gutxiegi eskaintzen dute, eta honekin, erdibideko puntua aurkitu dut. Etxeko argi eroso hori kanpora eramanez, eta, alde horretatik, uste dut baietz, aitzindari dela.

Ingurunera egokitutako diseinua dela esan dugu. Zer hartzen da kontutan halako diseinu bat egiterakoan?

Bi puntu bereizgarri daude: alde batetik, produktuaren itxura edo forma, eta bestetik, osaga-

'KANPANZAR'

"Kanpanzar mendatetik pasatzen ari nintzela, pinu bat ikusi eta hura hartu nuen diseinuaren oinarri"

EKODISEINUA

"Ekodiseinuak natura kontutan hartzen du, eta hori abantaila bat da. Ekologiaren balio erantsia du"

SARIAK

"Eskuratu ditudan sariak lanarekin ilusio osoz aurrera egiteko bultzada eman didate"

rrien aldetik nola planteatuta dagoen. Kasu honetan, erabilita-ko materialak oso dira bereizgarriak eta, gainera, birziklagarriak guztiz. Bi arlo horiek direla-eta, naturara egokitutako argiztapen diseinua.

Material birziklagarriak eta estetikoki naturara egokituak lantzen dituzu. Ingurumenarekiko konpromisoa duzu...

Bai, hala da, aipatutako bi arazoei horienatik. Konpromisoa beharrezkoa da, ezin ditugu garatu birzikla ezin diren produktu bikainak edo diseinuzko produktuak. Guk lantzen dihardugun proiektu guztietan, ekodiseinua kontutan hartzen dugu. Bestela, ez genuke etorkizunik izango.

Ekodiseinuaz hasi garela, zertan datza ekodiseinua?

Ekodiseinua oso garrantzitsua den faktore bat da. Produktuak asmatu baino lehen, behar-erak planteatzen diren produktuaren bizitza amaitzen den

une horretara arte kontutan hartu behar den guztia; nondik ekarri behar den materiala, zein material mota den, nola garraiatzen den, produktuak zenbat energia kontsumitzen duen, eta baita produktu hori nola deskonposatzen den, eta nola lehengai bihurtzen den, betiere, diseinu industrialaren edo produktu diseinuaren barruan. Azken finean, natura kontutan hartzen du ekodiseinuak, eta hori abantaila bat da. Ekologiaren balio gehitu hori du.

Jasotako sariak zer suposatzen dute zuretzat?

Nirea nahiko lan gogorra da, egunean 24 ordutakoa. Sariak lanarekin ilusio osoz aurrera egiteko bultzada eman didate, alde batetik. Bestetik, oihartzuna eman dit. Hemen halako gauzak egiten direla jendeak jakitea ere garrantzitsua da. Jendea diodanean, enpresetan dabilen jendearen gainean ari naiz, azken finean, enpresendako egiten dugu-eta lana.

oharrak eta deialdiak

BERGARA

> Bertso-afaria egingo dute datorren astean

Bertso afaria egingo dute otsailaren 16an, eta sarrerak salgai daude Arranon, Pol-Polen eta Korta-zaharren. Amaia Agirre eta Iker Zubeldia dira gonbidatuak. Artatse elkartearen izango da afaria.

OÑATI

> Erretiratuak Tolosako Aratusteetara doaz

Pake-Lekuko erretiratuak Tolosako Aratusteetara joango dira bihar, martitzena. Txarretelak salgai daude.

ARRASATE

> Euskararen jatorriaren inguruko berbaldia

Nondik dator euskara? delako hitzaldi zikloaren barruan, Martin Mendizabal frantziskotarrak egingo du berba etzi, eguaztena, Kulturaten, 19:00etan.

DEBAGOIENA

> Ate irekien jardunaldiak Arizmendin

Ate irekien jardunaldiak egingo dituzte honako egunetan: Haur Hezkuntzan, Arrasaten, otsailaren 7an, Santa Teresan, 17:00-19:00, eta Uribarrin, 18:00-19:15; Aretxabaletan, Basabeazpin, otsailaren 8an, 18:00-20:00; eta Eskoriatzan, Jose Aranan, otsailaren 8an, 18:00-18:30. Lehen Hezkuntzan, Arrasaten, Santa Teresan, otsailaren 7an egingo dute, 17:00-19:00.

ARRASATE

> Herri eskolako proiektuaren aurkezpena

Arrasate Herri Eskolak bere hezkuntza proiektua aurkeztuko du hilaren 12an, martitzena, Bedoñaben, 18:00etan, eta 13an, eguaztena, Musakolan, 18:00etan ere.

ARRASATE

> Bertso-afaria egingo dute Santa Agedan

Bertso afaria egingo dute datorren egubakoitzean, hilak 8, Santa Agedan, Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso bertso-lariekin.

OÑATI

> 1983an jaiotakoak, sagardotegira

83an jaiotako oñatiarrak gonbidatuta daude sagardotegi batera irteera egitera. Otsailaren 23rako antolatu dute. Izenematea otsailaren 9a baino lehen egin behar da, Euskadiko Kutxan.

BERGARA

> Jai batzordean parte hartzeko batzarra

Udaleko jai batzordean parte hartu nahi dutenendako batzar baterako dei egiten die Udalak. Eguenean, hilak 7, batzartuko dira kultura etxean, arratsaldeko zortzietan.

OÑATI

> 'Txokolatearen mundua' hitzaldi-tailerra

Anton Azpiatzuk, Klaxk txokolateroen elkartearen presidentek, *Txokolatearen mundua* delako hitzaldi-tailerra gidatuko du datorren zapatuan, otsailak 9, Errekalde eskolan, 16:30ean.

DEBAGOIENA

> Eskiatzera irteera egingo dute gaztelekukoak

Valdezarayko (Errioxa) eski pistetara joango dira Eskoriatza, Aretxabaleta eta Antzuolako gaztelekukoak otsailaren 23an.

Egun osoko irteera izango da. 20 euro da, norberak bere materiala eramanda; bestela, 40.

ARRASATE

> Mediterraneoan itsasbidaia, Abarakoentzat

Abarako bazkideek Mediterraneoan itsasbidaia egiteko aukera dute irailean. Bartzelona, Ibiza eta Montecarlo ikusiko dituzte, besteak beste. Izenematea otsailaren 6tik martxoaren 6ra bitartean egin behar da, euren egoitzan.

ARRASATE

> 58ko kintoeak (1937an jaiotakoak), ospakizuna

58ko kintoeak batzorra egingo dute martxoaren 8an; lehenengo, meza entzungo dute San Juan parrokiaren, eta gero, txikiteoa eta bazkaria Erreka jatetxean. Izena emateko, deitu Jose Riviereri (943 79 10 57) edo Pedro Fernandezi (943 79 02 48), martxoaren 2a baino lehen. 10 euro ipini behar da.

ARETXABALETA

> Fimo eta reflexoterapia ikastaroak aukeran

Fimo ikastaroa emango dute otsailaren 7an eta 14an, eta reflexoterapiarena, otsailaren 16an. Bietarako izenematea epea gaur, astelehena, zabalzen dute antolatzaileek. Horretarako, jo Loramendi euskara elkartera (943 77 09 70 da telefono zenbakia).

etxeko leihotik



Usoa Agirre > Goienako Telematika arduraduna

Parte hartu zuk ere euskarazko Wikipedian!

Pixka bat berandu bada ere, zorionak euskarazko Wikipedian aritzen zareten guztioi, batez ere, bost administratzaileoi! Urtarrilaren 25ean banatu ziren 2008ko Argia Sariak, eta euskarazko Wikipediak jaso zuen Interneti dagokiona.

Gure apalategietako edozein entziklopedia baino hobea da Wikipedia. Irteten den termino edo pertsonaia berri bakoitzeko, hortxe duzu hurrengo egunean Wikipedian bere definizioa edo azalpena. Beste entziklopedia askok ez bezala, doako informazioa eskaintzen du eta besteak adinako fidagarritasuna eta seriotasuna du.

Hirurogei bat erabiltzaile aktibo ditu euskarazko Wikipediak gaur egun, eta horien guztien doako lanari esker, haziz eta haziz doa. Ingeleseko Wikipedia da handiena (2.206.813 artikulua ditu), baina euskarazkoa ere ari da pixkanaka handitzen (23.770 artikulua daude gaur egun). Edozein izan daiteke Wikipediako erabiltzaile; nahikoa da eu.wikipedia.org helbidean sartu, izena eman eta lanean hastea. Besteak beste, artikulua berriak sortu edo sortuta daudenak hobetu ditzaitezke. Orain dela gutxi egin naiz ni erabiltzaile, eta zu?

"Entziklopedia askok ez bezala, Wikipediak informazioa doan eskaintzen du"

> Wikipediaren filosofiari jarraituz, talde-lanean eta ezer kobratu barik egindakoa da Software Librea ere. Eusko Jaurilaritzak software libreira ez pasatzea erabaki berri du. Erabaki penagarria.

> Azkar samar iritsi zaizkigu Aratusteak aurten. Ustekabeen harrapatu naute egun hauek eta ez dut mozerro landurik prestatu. Baina, edozein trapu zahar hartuta mozerro bikainak egin daitezke.

debagoiendarrak kanpoan

Miguel Angel Elkorobereibar > Donostia

"Donostiarrak harrituta geratzen dira Bergara bisitatzeko dutenean"

LEIRE KORTABARRIA > BERGARA

Miguel Angel Elkorobereibar Bergaran jaio zen 1966an, baina urte asko darama dagoeneko Gipuzkoako hiriburuan bizi izaten; hango Easo Politeknikoan irakasle da. Hala ere, Bergararekin harreman estua dauka.

Noiz eta zergatik joan zinen Donostia bizi izatera?

Orain dela hamabost bat urte etorri nintzen Donostia. Sasoi hartan, Berako ikastetxe batean egiten nuen lan, eta bidaia luze samarra egiten zitzaidan Bergararik haruntza. Horrez gainera, neskalguna Donostian bizi zen.

Erraz moldatu zinen hango bizimodura?

Donostia hiri lasaia da; lasaiegia, askotan. Garestia ere bada,

baina aukera asko eskaintzen dituena, era berean.

Goienkaria-ko kolaboratzaile eta Jardun euskara elkarteak kide ere bazara. Zer moduz jarraitzen dira Debagoieneko eta Bergarako berriak Donostiatik?

Oso ondo, bereziki dauzkan berriemaileei esker, familiarakoak eta lagunak. Eta *Goienkaria*, noski. Dena dela, maiz joaten gara Bergarara, hamabostean behin, gutxienez. Jaioterria bisita leku izateaz gain, aztergai ere badut, eta beti ari naiz Bergarari buruzko ikerketak eta lantxoak egiten.

Izan ere, askotan entzuten da hiriburukoak ez dutela barrualdea ezagutzen eta oso



GOIENKARIA

Donostian 15 urtean

Elkorobereibarrek 15 urte daramatza Donostian bizi izaten, eta hango politekniko baten irakasle da.

urruti ikusten dutela. Horrelakorik igarri duzu zuk?

Ditudan ikasle eta lagunaren artean nabaritu izan dut hori. Aparte geratzen ei zaie Debagoiena eta, horrexegatik, gure herria bisita dezaten etengabe gonbidatzen ditut. Askotan eraman ditut hara, eta harrituta geratzen dira gure herriarekin.

Zer gustatzen zaizu gehien Donostiatik?

Leku benetan eroso eta ederra da, baina, postaletako Donostiaz gain, makina bat auzo eta paraje ditu ezagutu beharrekoak. Donostiak dituen bidegorrietan ibiltzea asko gustatzen zait. Kultur eskaintza ere oso zabala da, eta barrualdekook asko estimatzen dugun zerbait dauka: hondartzak.

Eta Bergararik, zeren falta igartzen duzu gehien?

Zinema aretorik ez izatea lotsagarria da, eta aparkalekua topatzea, ia ezinezkoa. Bestalde, hainbat jauregitako lorategiak egokitu beharko liriteke jendeak erabiltzeko, kultur egitaraua handitu, eta historian zehar garrantzitsuak izan diren eta zeharo ezezagunak diren bergararren berri emateko modua aurkitu beharko litzateke.

Donostia bisitatzera joaten direnei, zer ikustea eta zer egitea gomendatzen diezu?

Debagoiendarrei, ezer gutxi, denok ezagutzen dutelako Donostia; kanpotarrei, aldiz, ohiko lekuez gain, bertako ohiturak erakutsi eta geure giroan integrazten saiatzen naiz.

kale inkesta

Autobuserako txartel bakarra atera duzu?
Baduzu ohiturarik autobusa erabiltzeko?Jon Vidal
Ikaslea
Bermeo

Ez, ez daukat txartela; gainera, orain arte, ez dut horren berririk izan. Baina nik erabiltzen dut autobusa Bilboko joan-etorria egiteko; hortaz, aterako dudala uste dut. Ondo iruditzen zait deskontuak egitea.

Miren Maruri
Langilea
Arrasate

Ez daukat txartel bateratua, eskuz ordaintzeko ohitura daukat-eta. Hala ere, ideia ona iruditzen zait horrelako aukerak egotea. Txartel bakarra-ekin, bidaietan deskontuak egiten dituzte, eta hori ondo dago.

Ignacio Fernandez
Langilea
Arrasate

Ez daukat txartel bateratua. Izan ere, ez daukat ohiturarik autobusa erabiltzeko; hortaz, ez dut uste txartela egingo dudarik. Hala ere, ideia ona dela uste dut, modu horretan, zerbitzu publikoa bultzatzen da-eta.

Lourdes Oruna
Langilea
Arrasate

Ez dut erabiltzen zerbitzu publikoa; hortaz, ez dut uste oraingoz txartela aterako dudarik. Hala ere, oso ideia ona iruditzen zait; gainera, txartelarekin, deskontu handiak egien dituzte, eta hori positiboa da.

irakurlearen txokoa

943 25 05 05

goienkaria@goiena.com

OÑATI

> Oñatiko Osasun etxean, gaztelania hutsean

Irakurle batek idatzi digu, pasa den astean gertatu zitzaiona azaldu guran: "Martitzenean, Oñatiko ambulatarioa deitu nuen medikuarekin zita hartzeko. Telefonoa hartu zidan gaztelaniaz berba egin zidan. Nik euskaraz erantzun nion eta, hark, berriro, gaztelaniaz egin zidan". Irakurlearen ustetan, euskaraz eman behar dira horrelako zerbitzuak. Hala ere, "pentsatu gura dut lanuzte deialdiak eragina izango zuela eta, egunerokotasunean, euskaraz egingo dutela ambulatarioan", gaineratu du irakurleak.

BERGARA

> Ibgarariko errepidean, kartoizko kaxak

Bergarako lagun batek deitu digu aspertuta dagoela esateko. Domeka goizean, atzo, Ibgararai kalean, kartoizko kaxak omen zeuden errepidean. "Ez dakit Aratusteen ondorengo zikin-keria den edo haizeak bota dituen kaxa horiek", gaineratu du. Baina, horrelakoak behin baino gehiagotan gertatzen direla etam kontu handiagorekin ibili beharko ginatkeela uste du Bergarako irakurleak.

OÑATI

> Oñatz dantza taldea zoriondu gura dute

Zapatuan Oñatin antolatu zuten Luzaideko Inauteriak direla-eta, Oñatz dantza taldea zoriondu gura du herritar talde batek. Datorren urtean ere berriro antolatzea animatu gura dituzte.

ustek uste

Miren Arregi

Aratustek,
folklore ala
dibertsio?

Aratustek. Historian zehar gizarte eredu bakoitzak bere erara ulertu eta horren arabarako erantzuna eman izan dion jai. Antzina, urteari ongietorria egiteko ospatzen omen ziren; gerora, Erdi Aroan, Garizuma garaiaren etorrera iragartzeko. Francoren diktadurak Aratustek ospatzea debekatu zuen, eta azken urteetan indar handia hartu dute. Egun, mozarrotzearena dibertsio hutsagatik egiten dugula iruditzen zait, eta ez litzateke gaizki egongo euskal kultura eta folklorearekin zerikusia duten jaiak eta dibertsioa, biak uztartzea. Horren adibide dira Oñatin zapatuan egin zuten Luzaideko Inauteria eta Eskoriatzako Urdelardero. Zer deritzozue jaiok eta tradizioa gehiago uztartuko bagenu?


zorroztailea



Markos Balentziaga

Stanfordeko Unibertsitatera

"Nafarroako Gobernuak erabaki du (...) polemikan sartzea, Juan Jose Ibarretxe bi aste barru Kalifornian, Stanfordeko Unibertsitatean, egitekoa den hitzaldiaren aurrean (...). Protesta sinadurak batzeko ekimenaren ondoren, baieztatu zen Miguel Sanzen Gobernu hitzaldiari trabak jar-tzen dabilela".



Gara > 2008-01-01

Kaliforniako Stanfordeko Unibersidadera joatekotan da Ibarretxe aste bi barru. Ez zotan kontuak atenziñorik emon-go Naparruko Gobernuak Stanfordeko unibersidadari egin dotsan eskabidia be leitu izan ez baneu: erretirau dakixola Ibarretxeri hara joateko gonbitta!

Horretxek esnatu ninduan egubakoitz goizian periodikuak irakurtia izaten dodan lotatik.

Aguro eta ondo -usuak hegadan letxe- azalduta: Naparruko Gobernu ez da fio Ibarretxek Kalifornian esango dabenaz, eta España-ko eta Navarrako errealidadia faltsutu eingo dabela uste dau.

Pentsatzen jarririta, ez da bape ona politikuak aspertuta bizitzia. Osasungarria dabe, bai horixe, batera eta bestera ibiltia: gaur gimnasia, bihar Kaliforniara, etzi Piriniotara. Jaime Ignacio Del Burgok, barbarako, praktika horrek danak eingo balittu, Navarra hobeto ezagutziaz gañera, gerri-bueltia be señaladamenten fiñagua izango leuke; auskalo, Arnold Schwarzenegger Kaliforniako gobernadoriaren parekua, igual.

Baña politiko-jendiak komeni-komenigarria dau -ibiltia bezain-beste, bai- komunikatzaille eta berba-jarixoa onekua izatia, baita barrena hustutzen jakittia be. Zer egingo leukie, jo daigun, Ruiz Gallardon Madrilleko alkatiak, edo Espe Aguirre Komunitateburuak, aspertziaz aparte, egun osuan isilik egon bihar balebe? Eta Eduardo Zaplanak?

Gurera itzulitta: napar gobernuburu dan Miguel Sanz zela entreteniduko giñuke Ibarretxeren edo Barrenaren arrastua galduko baleu? Seguruenik Sanz bera be joango litzake pozik asko Kaliforniara -eta nora ez?- eta, isildu barik jardungo leuke edozein politiko abertzalek ondo dago esan daben lekuan txarto dago zuzentzen... baño, ai ene, Sanz ez dabe apenas gonbidatzen, eta bai bidaiak eta bai mintzapraktikak -naziñoartian- oso iñoiz egin ahal dittu. Zer burubide erabili egoera horretan? Iñori eindako gonbitta erretiratza eskatu!

"Napar Gobernu ez da fio Ibarretxek Kalifornian esango dabenaz"

"Miguel Sanz zela entreteniduko giñuke Ibarretxeren arrastua galduta?"

Goienkaria

Argiraratzailea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarteak • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
Lehendakaria Estepan Plazaola Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate Erredaktore burua Edu Mendibil Erredakzioa Leire Kortabarria, Arantzasu Ezkibel, Miren Arregi eta Aitziber Aranburuzabalak Oinarritzko diseinua Goio Arana Diseinu arduraduna Alex Azkarate Maketazioa Imanol Soriano Publizitate arduraduna Mireia Larrañaga Harpidetza eta banaketa Marta Leturia Administrazio arduraduna Agurtzane Gaintzarain

EGOITZA NAGUSIA
BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.comORDEZKARITZAK
ARRASATE 20500 Otarola Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: ararasate@goiena.comARETXABALETA 20550 Durana 11 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.comPublizitatea Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: SS-0088/04 • ISSN: 1697 3542 • Tirada: 5.000 ale

Gipuzkoako Foru Aldundiak
diruz lagundutako aldizkariaGipuzkoako
Foru AldundiaEUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCOKULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako SailburuordetzaEusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

Herriak

Arrasate > 10 Bergara > 11 Oñati > 12 Aretxabaleta > 13 Eskoriatza > 13 Antzuola > 14 Aramaio > 14 Elgeta > 14 Leintz Gatzaga > 14



> ARRASATE

Erdi Aroko azoka egitea onartu du Udalak, eta maiatzaren 24an eta 25an izango da > 10



> OÑATI

Santa Agedako kalejira, hitzaldiak, filmak... izango dituzte ikastetxeetako ikasleek otsailean > 12



> ELGETA

'Barne barnetik Elgeta' delako DVDa aurkeztuko dute eguenean Espaloia antzokian > 14

ARRASATE > HIRIGINTZA

Eguenean amaitzen da urbanizazio proiektuak aurkezteko epea

LANAK

Laister esleituko diren urbanizazio lanok maiatzean hasiko dituzte

ADJUDIKAZIOA

Lanen esleipena egin barik dago. Eguena da proposamenak aurkezteko azken epea

MIREN ARREGI > ARRASATE

Zerrajerako bigarren, hirugarren eta laugarren faseei dagozkien urbanizazio lanak adjudikatzeko daude. Izan ere, enpresek proiektuen proposamenak aurkezteko epea hilaren 7an, eguenean, amaitzen da. Behin lanak adjudikazioa egiten denean, 60.000 metro koadro izango dira urbanizatu beharrekoak, eta lan horiek egiteko gehienezko aurrekontua 6.175.065,90 eurokoa da.

Asmoa da maiatzerako fase horiei dagozkien urbanizazio lanak hastea. Urbanizazio lan horiek bi urteko epean bukatzea aurreikusten du Arrasateko Udalak; ur saneamendua, argiteria, zoladura lanak, lorategiak, berdeguneak eta halako lan orokorrak egingo dira. Orain adjudikatu behar dituzten urbanizazio lanetan –bigarren, hirugarren eta laugarren faseei dagozkienak–, aipatutakoez gain, umeendako jolasgune bi ere egingo dituzte.

UMEENDAKO GUNEAK

Urbanizazio fase horien barruan, aipatu moduan, umeendako jolasguneak ere egingo dituzte; bi, hain zuzen ere. Lehenengoa babes ofizialeko etxebizitzaren atzeko aldean egin behar dute, urbanizatu behar duten gunearen erdialdean, hain zuzen ere. Jolasgune hori 1 eta 5 urte bitartekoendako izango da. Bestalde, bigarren jolasgunea egingo dute Apendizen Eskolaren parean, La Caixak egin behar dituen alokairuzko 148 etxe-



ZERRAJERA GUNEA Proiektu osoaren barruko lehen faseko obrak Apirilaren amaierarako bukatuko dituzte.

JOSETXO ARANZABAL

bizitzen ondoan. Hemen, 6 eta 13 urte bitarteko umeek jolastu ahaliko dute. Jolasgune hau, gainera, Zaldibarkoaren luzapen gisa egituratu gura dute. "Ume guztiak batera egin ez daitezten, alde han-

dia dago-eta 13 urteko eta 3 urteko umeen artean; horregatik, bi jolastoki egingo dira, bata txiki-entzat eta bestea nagusiagoentzat", dio Juan Antonio Urdangarin Udal Hirigintza teknikariak.

LEHEN FASEA, AMAITZEAR

Hainbat dira Zerrajerako etxebizitzaren inguruan urbanizatu beharreko gunek. Dagoeneko, lehen faseko lanak amaitzeaz daude; lehen fase hori da Eusko Jaurla-

ritza eraikitzen diharduen babes ofizialeko etxebizitzaren multzoa eta etxebizitzaren horien (Visesako etxebizitzak) inguruko urbanizazioari dagokiona. Urbanizazio proiektua CIG enpresak egin du eta "apirilaren amaierarako bukatuta" egongo da. Hala azaldu digu Arrasateko Udaleko Hirigintza teknikari Juan Antonio Urdangarinnek. Urbanizazio proiektu guztietan bezala, hemen ere egin dira bide sareak, espaloiak, ur eta gas sareen hornikuntza, saneamendua, argiteria, altzari publikoak (jarlekuak, argiak...) ezartzea, lorategiak eta, oro har, etxebizitzaren inguruan bizitza normala egiteko beharrezko diren azpiegiturak.

ESKUALDEKO OSPITALE BERRIAREN PROIEKTUA

36 milioi euro kostako den proiektua Amenabar enpresak egingo du

Zarazuko Amenabar enpresa eraikitzailea da Eskualdeko Ospitale berriko lanak egingo dituen. Urte hasieran ziren hastekoak lanok, baina bistakoa da obrak atzeratu egin direla. Ospitale berria egiteko proiektuak, Zerrajerako proiektuarekin zerikusirik ez badu ere, eragina izango du Zerrajerako babes ofizialeko (672 egingo dituzte guztira) etxebizitzaren urbanizazio lanetan eta, oro har, guneko osoari dagokio-

nean. Izan ere, oso gertu daude Zerrajerako etxebizitzak eta Eskualdeko Ospitalea. Eskualdeko Ospitale berriko proiektuaren arabera, gaur egun aparkalekuak dauden tokian, anbulatorio parean, hain zuzen, beste eraikin bat egingo dute. Hori horrela, bertan dauden aparkalekuen ordezkoak non egin aztertzen dihardu Udalak. Aztertzen diharduten aukera horietako bat aparkalekuak lur azpian egitea litzateke.

KULTURA > ERDI AROKO AZOKA

Maiatzaren 24an eta 25ean Erdi Aroan murgilduko da Arrasate

Erdi Aroko azoka egiteko proposamena ontzat eman zuten joan den astean

Enpresa kontratatze orduan, Arrasaterikiko erakusten duen lotura kontuan hartuko dute

UBANE MADERA > ARRASATE

Beste urte batez, Erdi Aroko azoka egingo dute Arrasaten. Hitzordua ere zehaztu dituzte: maiatzaren 24an eta 25ean gauzatuko dute. Halaxe erabaki zuen joan den asteleheneko Tokiko Gobernu Batzarrak.

Orain, Erdi Aroko azoka hori antolatu eta gauzatzeko enpresa kontratatze lehiaketa abiaraziko dute. Hori horrela, oinarrien arabera, lehiaketa irabazten duen enpresak 24.500 euroko aurrekontua izango du aurtengo azoka antolatzeko.

Jakina, enpresa hori kontratu artean, ezingo dugu jakinarazi zein ezaugarri izango dituen Erdi Aroko azokak aurtan.



ERDI AROA Aurtan ere Erdi Aroko azoka egingo dute Arrasaten, maiatzean.

GOIENKARIA

ARRASATERE KIN LOTURA

Hori bai, enpresa hori aukeratzeko orduan, Udalak orain arte baloratu ez duen ezaugarri bat baloratuko du: enpresak egiten duen eskaintza herriari eta

herriaren errealitateari moldatzea. Edo bestela esanda, baloratuko du aurkeztutako proposamenean, azoka egiteko orduan, udalerriko kultura baliabideak kontuan hartzen dituzten (azokan

barneratuta), udalerraren egitura geografikoa kontuan hartzen duten, Arrasateren gaineko Historia lantzen duten, mitologia kontuak aztertzen dituzten eta halako ezaugarriak.

GIZARTEA > TXORIZO LEHIAKETA

Txorizorik onena, Arrasaten egindakoa

Bizkaia, Gipuzkoa, Araba, Extremadura, Kantabria eta Nafarroako txorizoak aurkeztu zituzten

U.M. > ARRASATE

Pozik dago Jose Mari Salegi harakina Bilbon lortutakoarekin: lehen saria Baserriko Txorizoen Bilboko XII. lehiaketan: "Aurreko urte batzuetan izan nintzen finalista hiru aldiz; aurtan lehen saria lortu dugu eta ez genuen espero. Beti dago hor barruan zertxobait eta ilusioarekin bidaltzen dugu, baina 85 lagun joan gara lehiaketa eta lehenengo saria ateratzerik ez nuen espero".

Salegik gaineratu du sari garrantzitsua dela joan den eguean eskuratu zuen hori: "Gure lanerako inportantea da. Azken batean jende askok parte hartzen dugu eta aurrea geratzea... Horrez gainera, jendeak ikusten du hemen kalitatezko txorizoa egiten dugula".



TXORIZO SARIDUNA Jon eta Jose Mari Salegi aita-emeak, garaikur, diploma eta txorizo irabazlearekin.

UBANE MADERA

TXERRI HARAGI ONA

Halako txorizo kalitatezkoak egiteko erabiltzen duen sekretuaren gainean, galdetuta berriz, zera dio harakinak: "Ez dago sekretu handirik. Txorizo ona ateratzeko behar da txarri haragi ona eta

gero, kurioso-kurioso egin gaudak. Guk portzentajeak hartuta dauzkagu gure erara: zenbat piper txorizero bota behar den, zenbat piper hauts... Horrekin txorizoa ondo ateratzen dira, gero pixka bat sikatu behar".

Hori bai, aitortu digu semeak eta emazteak asko laguntzen diotela zeregin horretan: "Denok kolaboratzen dugu, lana ekipoa egiten dugu hemen". Txorizoen lehiaketa irabazita, orain odolsteak egiten hasi behar da Salegi.

IKASTAROKAK

Dantza, txalaparta eta sukaldaritza

Gaur zortzi hasiko dira gazte bulegoak antolatutako ikastaroak

U.M. > ARRASATE

Otsailaren 11n hasita, hiru ikastaro eskainiko ditu Udala Gazte Bulegoak. Batetik, gaur egungo dantza erakutsiko du Maite Albes dantzariak, otsailaren 11tik martxoaren 12ra. Eskolak izango dira astelehen eta eguaztenetan, 18:00etatik 20:00etara, Kulturaten.

Bestalde, txalaparta jotzen ere erakutsiko dute, Ttakun taldearen eskutik. Otsailaren 15ean hasiko dira eskolak, maiatzaren 10era arte, egubakoitzetan 20:00etatik 21:30era eta zapatuetan, 11:00etatik-13:00etara.

Horrez gainera, sukaldaritza ikasteko aukera ere izango da, Igor Otaduren eskutik, otsailaren 12tik martxoaren 11ra. Eskolak izango dira, martitzenean, 18:30etik 20:30era.

Hiru ikastaroek berdin balio dute: 20 euro; 12 euro ikasle edo langabeendako.

> EUSKARA

Gure hizkuntzaren jatorria aztergai, eguaztenean

Datorren eguaztenean, otsailaren 6an, Martin Mendizabalen hitzaldia izango da Kulturaten. *Nondik dator euskara?* hitzaldi zikloaren barruko bigarren hitzaldia izango da.

Hitzordua da 19:00etan, Kulturateko Loramendi aretoan (erreka aldetik). Mendizabal da Arantzazuko apaiza; artxibo zibil eta erlijiosoetan arakaten ibilitakoa eta topnimari buruz ikertu du.

> HEZKUNTZA

Arrasate Herri Eskola, matrikulazio kanpian

Datorren ikasturterako 2008-2009 matrikula garaia iristear dagoela-eta, Arrasate Herri Eskolak bere hezkuntza proiektua ezagutarazteko batzarrak antolatu ditu, interesa duen edozeinendako. Hain justu ere, datorren astean bi batzar egingo dituzte, otsailaren 12an (Bedoñaben) eta 13an (Musakolan). Bi kasuetan, hitzordua ordu berean da: 18:00etan.

Juan Luis Martin > Psikologian doktorea eta Etxadi elkarteko kidea

"Umeen hazkuntzan arazoa azaldu baino lehen aurreratzea da gure zeregina"

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Udaleko Ongizate zerbitzuak familiendako orientazio psikologikoko zerbitzua jarri zuen martxan iazko urrian. Zerbitzu hori EHuko Psikologia fakultateak eskaintzen du, Bilboko Etxadi elkartearen bitartez eta 0 eta 19 urte bitarteko seme-alabak dituzten gurasoendako doako zerbitzua da.

Urrian hasi zineten zerbitzua ematen Bergaran eta uste dut harrera ona izan duela.

Gure balorazioak bat egiten du Udalak egin duenarekin, hau da, balorazioa benetan positiboa da.

Jaso ditugu 41 kontsulta urrian, azaroan eta abenduan. 28 euskaraz egin dituzte eta 13 gaztelerez. Gehienak posta elektronikoen bidez egin dizkigute, 25, hain justu, eta 16 telefonoz.

Zerbitzuaren helburua ekarriko dugu gogora.

Prebentzio arloan halako zerbitzu bat falta zela uste dugu. Lehen mailako prebentzioa da eskaintzen duguna, hau da, arazoei agertu aurretik aurreratzea da gure zeregina. Beste hitz batzuetan esanda, gure helburua da, Bergarako familiek izatea doako zerbitzu bat non galde dezaketen seme-alaben hazkuntzaren gainean izan ditzaketen zalantzak. Eta esan dut zalantzak, ez arazoak, izan ere, arazoak prebentzioaren beste maila baten lantzen dira-eta.

Zeintzuk dira jaso dituzten zalantza ohikoenak?

Bi mailaketa egin behar dira: haurtzaroen -jaiotzatik 12 urtera arte- ematen diren zalantzak

eta nerabezaroen -13tik 19ra arte- ematen direnak.

Haurtzaroen ohikoenak porta arazoekin lotura dutenak dira. Horrekin batera jaso ditugu galderak honako gaien gainean: esfinterraren kontrola, haserre-aldiak, zeloak, lo eta elikadura ohiturak...

Nerabezaroen ere galdera ohikoenak portaera arazoaren gainekoak dira: elkarbizitza arazoak, gurasoek ez jakitea nola maneiatu semea edo alaba erretxinago daudelako... Ohikoak dira baita ere kontsumoen gaineko galderak egitea -marihuana eta alkohol kontsumoa-, gauez irteteari zein ordu muga jarri behar dioten galdetzea eta zenbat paga eman ere bai.

Eta zalantza gehiago dute gurasoek umea haurra denean edo nerabea denean?

Etxadi elkartean zerbitzu hau ematen hasi aurretik -duela hiru urte-, galdera hori egiten genion gure buruari. Pentsatzen genuen gehiago izango zirela nerabezarorekin lotutakoak, baina ez da horrela; haurtzarolari buruzko galdera gehiago dago. Batik bat,

"Gurasoei baliabideak eskaintzen dizkiegu umearen hazkuntza izan ditzaketen zalantzei aurrea hartzeko"

"Gaur egun irekiagoak gara eta laguntza bilatzen dugu etxetik kanpo"

urtebete eta bost urtera arteko umeen gaineko galderak daude. Logikoa ere bada, alde batetik, delako umearen garapen psikologikoan aldaketa gehien ematen den garaia da. Eta, bestetik, kontuan izan behar da familiak egon daitezkeela apur bat despistatuta, lehen umea delako, esaterako.

Oraindik ere pentsatzen dugu umeekiko izan ditzakegun zalantza eta arazoak etxe barruan konpontzekoak direla?

Geroago eta gutxiago. Aurreko belaunaldietan ohikoa zen arazoak etxe barruan konpontzea. Umearen hazkuntzarekin arazoa zuen aitak edo amak -amak gehienetan- bere amari, hau da, umearen amamari galdetzen zion.

Gaur egun irekiagoak gara eta baliabideak bilatzen ditugu familian eta familiarik kanpo. Kontuan izan behar da, bestalde, gaur egun umeekin lotutako bibliografia ugari dagoela; *best-seller* asko dago.

Esan duzu lehen ama zela zalantza edo kontsultak planteatzen zituena, bere amari, gainera, gehienetan. Gaur egun nork helarazten dizkizue zalantzok zuei, amak ala aitak?

%99an oraindik ere amak jarraitzen du kontsulta egiten. Gainerako %1ean, elkarrekin egiten dute.

Hainbat herriri ematen diezue zerbitzu. Bergararen kasuan izan da atentzioa deitu dizuen kontsultaren bat?

Ez. Beste herri batzuetan ematen diren berberak izan dira.



Juan Luis Martin.

GOIENKARIA

Hori bai, egiten diguten kontsultetan detektatzen badugu egon daitezkeela arazo sakonagoa, ebaluazioa edo interbentzioa behar duena, bada, kasu hori udalera edo psikologia zerbitzu espezializatuetara bideratzen dugu. Bergaran halakoren bat ere izan da.

Kontsultok jaso eta zenbat denborara erantzuten dituzue?

Bost lanegunen barruan. Saiatzen gara erantzuna idatziz bidaltzen, segi beharreko urratsak idatziz izanez gero samurrago jarraitzen ditugulako, oro har.

Erantzunarekin batera gaia-ekin lotura duen bibliografia ere bidaltzen duzue.

Bai. Gure zerbitzuaren helburu orokorra da aitak eta amak prestatzea. Hau da, batetik, gure asmoa da egiten duten galdera konkretuari erantzuna ematea,

jarraibide batzuk ematea izan dezaketen arazo txikiari irtenbidea emateko. Bestetik, saiatzeko gara bibliografia zein webguneen helbideak ematen eurek duten zalantza, zein beste hainbat gai kontsultatzeko aukera izan dezaten. Azken batean saiatzeko gara gurasoei baliabideak eskaintzen umearen hazkuntza izan ditzaketen zalantzei aurreratzeke.

Zuekin harremanetan jarri nahi duenak nola egin dezake?

Hiru modu daude. Batetik, telefonoz deituta, 944 05 15 49 zenbakira, eguenetan, 11:00-12:00 eta 16:00-17:00 orduetartean. Bestetik, posta elektronikoz: Bergarako Udaleko webgunean -*www.bergara.net*-, Etxadi elkarteko webgunerako esteka dago, eta, azkenik, posta arruntez: Maximo Agirre kalea, 18 (bis) 5. solairua, 12. departamentua, 48011, Bilbo.

> HAUTESKUNDEAK

Posta bidez bozkatzeko bulegoa jarri du EAJ alderdiak

Martxoaren 9an ospatuko diren hauteskundeetarako posta bidez bozkatzeko bulegoa jarri ditu EAJk. Bulegoa Batzokian jarri dute eta posta bidez bozkatu nahi dutenei laguntzeko dago. Bulegoa egongo da zabalik, gaurtik aurrera, 11:30etik 13:00etara eta 19:00etatik 21:00etara. Kontuan izan behar da postaz bozkatzeko azken eguna dela otsailaren 28a.

> OSPAKIZUNA

Santa Ageda kantuan aterako dira Aranzadi eta San Martingoak

Gaur, astelehena, Santa Ageda bezpera da eta ohiturari jarraituz, kantuan aterako dira ikasleak. San Martingoak 15:00etan batuko dira, eskolako patioan. Txikienek eskola inguruan abestuko dute; LHkoak San Martin plazaraino joango dira. Aranzadiko Haur eta Lehen Hezkuntzakoak 18:00etan abiatuko dira plazatik; DBHkoak, berriz, 19:00etan.

> AISIALDIA

Jai batzordeak jaiak antolatzen dituzte batzarra deitu du egunerako

Udaleko Jai batzordean parte hartzeko dei egin du Udaleko Kultura Zerbitzuak.

Batzordeak otsailaren 7an, eguna, egingo du batzarra, 20:00etan, kultura etxean. Hala, interesa dutenei hara joateko gonbita egin diete. Batzarrera joango direnei eskatzen diete hurrengo bileretara joateko konpromisoa hartzea.

> ELKARTASUNA

Sahararren alde josteko makinak batu nahi ditu Bubisher elkarteak

Josteko makinak batzeko ahaleginean dabil sahararren aldeko Bubisher elkarteak. Hala, etxean erabiltzen ez dugun josteko makinarik izanez gero, eurekin harremanetan jartzeko eskaria egin dute -943 76 58 05-. Otsailaren 5era arte dago makinok emateko. Bubisherrek sahararren kanpalekuetara bidaliko ditu batutako makinak.

> ZIKLOTURISMOA

Zikloturistek zabalik dute lizentziak berritzeko epea

Bergarako Zikloturista Taldeak abian jarri du 2008ko lizentziak berritzeko kanpaina. Horretarako, Kutxako 21010070810006752612 kontu korrontean 92 euro sartu eta ordainagiria i2 edo Igartua bizikleta dendetan entregatu behar da. Otsailaren 29a da lizentziak berritzeko azken eguna. Informazio gehiago bizikleta dendan horietan jaso daitezke.

IKASTETXEAK > KULTURA

Otsailerako hainbat ekitaldi herriko ikastetxeen eskutik

Hainbat ekitaldi iragartzen dira bihar hasi eta otsailean zehar

Anton Azpiazu eta Jonan Fernandez dira ekitaldiotako protagonista nagusiak

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Errekalde Herri Eskolak, Elkar Hezik eta Txantxiku Ikastolak hainbat ekitaldi iragartzen dituzte otsailerako; besteak beste, hitzaldiak, zinema emanaldiak eta antzerki saioak.

TXOKOLATEAZ BERBA

Ikasleak oraindik eskolan daudela aprobetxatuz Herri Eskolako eta Elkar Heziko ikasle, irakasle eta gurasoak kopla kantari irtengo dira gaur. Hain zuzen, Santa Ageda bezperan, herriko hainbat kaletan ibiliko dira, goizez eta arratsaldean.

Txokolatearen Mundua izeneko hitzaldi-tailerra antolatu du Errekalde Herri Eskolak otsailaren 9rako. Klaxk Txokolateroen elkartereko kide Anton Azpiazuk emango du ikastaroa. Bestalde, otsailaren 13rako, *Irabazle & Galtzaile* filmaren euskarazko



KANTARI Herri Eskolako eta Elkar Heziko ikasle, irakasle eta gurasoak kopla kantatzera irtengo dira gaur.

HERRI ESKOLA

emanaldia iragartzen dute, eta otsailaren 16rako, Trikuharri taldearen eskutik *1, 2, 3... Iñaxito* bertso-antzerki saioa.

JONAN FERNANDEZ, ELKAR HEZIK

Baketik zentroaren koordinatzaile Jonan Fernandezek hitzaldia eskainiko du Kultura etxean, otsailaren 12an. Elkar Hezik antolatutako hitzaldian egunerokotasunean ematen diren gatazken inguruko hausnarketa egingo da.

Bestalde, Elkar Hezik Santa Eskolastika eguna ospatuko du otsailaren 23an. Besteak beste, magia ikastaroa, askari handia eta ipuin kontaketa saioak iragartzen dira.

HITZALDIK, IKASTOLAN

Gurasoendako hitzaldiekin jarraituz, otsailean hiru iragartzen ditu Txantxiku Ikastolak: otsailaren 19an, 26an eta 28an. Nerabeek haien heziketa afekti-

bo sexualaz duten iritzia, haur eta nerabeen agresibitatea eta ikastolako hezkuntza proiektua eta funtzionamendua izango dira hitzaldiotako gai nagusiak. Bestalde, hitzaldi bakoitza adin jakin bateko ikasleen gurasoendako izango da. Hitzaldi guztiak Txantxiku Ikastolako areto nagusian izango dira arratsaldeko seiak eta erdietan. Gainera, hitzaldia dagoen artean haurtzaindegi zerbitzua egongo da.

LANAK > IRISGARRITASUN PLANA

Bigarren faseko lanak hasi dituzte

Irisgarritasun planaren bigarren zatiak Portu, Bakardadeko Ama eta Moiuia kaleak hartzen ditu

Construcciones Uzturpe enpresak egingo ditu lanok ia 272.000 euroren truke

M.B. > OÑATI

Irisgarritasun planaren bigarren fasea abian da dagoeneko. Portu kalea, Bakardadeko Ama eta Moiuia kaleetako lanak egunotan hasi dituzte. Enkante bidez egindako deialdira aurkeztu zirenen artean aurrekontu merkeena aurkeztu zuen Construcciones Uzturpe enpresak egingo ditu lanok. Dagoeneko langileendako aldagelak jarri ditu kultura etxeko lorategiaren aldamenean.

LANAK HIRU KALETAN

Moiuia Kalearen hasieran, Bakardadeko Ama eta Portu kaleetan egingo diren lanen artean aipagarriena espaloien zabaltze orokorra izango da, gurpildun aukiekin doazenak aintzakotzat hartuko dira-eta.

Era berean, hiru kaleetako hainbat zebra-bide eta ibilbidean dauden kale-argi batzuk lekuz aldatuko dira. Lope Agirre kalearen hasierako eta amaierako guneetan plataforma moduko



MOIUIA KALEA Argazkian, espaloia handitzeko lanak.

M.B.

ibilbideak egokituko dira eta hartarako hainbat zoladura erabiliko dituzte.

APARKALEKU GUTXIAGO

Portu kalean, Euskadiko Kutxaren eta Santander banketxearen aurreko espaloiak zabaldu egin-

go dira; hortaz, Santander banketxearen aldean dauden aparkalekuak kendu egingo dituzte.

Gainera, autoek oinezkoen pasabidea oztopatu ez dezaten, hiru kaleetan hainbat aparkaleku mugatzeko elementuak jartzea aurreikusten da.

MENDI ASTEA

Jose Carlos Tamayo, mendi astea hasteko

Mondarbat lehiaketako argazki onenak ikusgai daude erakusketan

M.B. > OÑATI

Aloña Mendik antolatutako mendi astea bihar hasiko da Jose Carlos Tamayoren ikusentzunezkoarekin. Hain zuzen, alpinista bizkaitarrak Karakorum mendilerroan egindako espedizioetan oinarritutako lana aurkeztuko du.

Eguaztenean Adolfo Madinabeitia eskalatzailak Karakorumeko Amin Brak-eko partean egindako eskalada erakutsiko du. Amaitzeko, Iñaki Otxoa de Oltza iruindarrak, 2007an Daulaghirira egindako espedizio irudi eta gogoetak eskainiko ditu egunearan.

Hiru ikus-entzunezkoak Kultura etxean izango dira, 19:30ean.

ERAKUSKETA

Aloña Mendiren eskutik, Lloret de Mar-eko *Mondarbat* lehiaketako argazki sarituekin osatu den erakusketa ikusgai dago otsailaren 17ra arte, arratsaldean, 18:30etik 20:30era.

ARATUSTEAK

Txokolatada eta zirkua Inauteriak bukatzeko

Arratsaldean eta gauean Euskodiskoteka egongo da plazan

M.B. > OÑATI

Aratusteei bukaera emateko azken ekitaldiak burutuko dira bihar, Aratuste-martitzenean. Arratsaldeko bostetan hasita gazteendako zirkua saioa egongo da Zubikoa kiroldegian. Hain zuzen, Zirkua Zirkus pailazoan eskutik *Zorionak Zuri* ikuskizuna eskainiko dute.

Bestalde, 18:30ean, txorimaloak eta txokolate jana egongo dira plazan. Azkenik, eguna dantzan bukatzeko Euskodiskoteka egongo da, 19:00tik 21:30era, eta 23:00tik 00:30era.

ESKORIATZA-ARETXABALETA > SANTA AGEDA EGUNA

Bi neskak dantzatuko dute lehen aldiz plazan

Gadea Errastik eta Elixabete Gabilondok, mutilekin batera banakoa dantzatuko dute Eskoriatzan

Aretxabaleta Abesbatzak eta Leizarra Musika Eskolako, haurrek abestuko dute martitzenean

MIRIAN BITERI > ESKORIATZA

Koplak nagusituko dira gaur eta bihar bitartean Eskoriatzan eta Aretxabaletan, Santa Ageda eguna dela-eta. Azken herri horretan, gainera, dagoeneko 1989an jaiotako kintoen ahotsak entzun dituzte, aste bukaeran egin dituzte-eta ospakizunak.

Eskoriatzan gaur, Santa Ageda bezperan, aterako dira kalea 1980. urteko neskak eta mutilak. Baserriz baserri, guztira, 25-30 lagun inguru ibiliko direla azaldu du Gadea Errasti partaideak. Aurten, bigarren aldiz irtengo dira neskak abestera.

Bihar, Aratuste-martitzenean, ere kantuan eta eskean ibiliko dira kintoak. "Goiz goizetik ibi-

liko gara Santa Ageda egunean abesten. Egun osoa pasako dugu auzoetan eta bereziki, herriko kaleetan gora eta behera, kantatzen", jakinarazi du Errastik.

URDURI

Arratsalde partean, 19:00etan, Herriko Plazara joango dira denak. Han lehenengo aldiz, bi neska izango dira banakoa dantzatzen, mutilekin batera. Gadea Errasti bera eta Elixabete Gabilondo izango dira. "Apur bat urduri gaude, ez dakigu eta jendeak nola hartuko duen. Batzuek ondo ikusiko dute, beste batzuek, berriz, agian ez hainbeste", aipatu du Errastik. Neskak plazan dantzatzeko ideia Aretxabaleta-



ESKORIATZAN 1980an jaiotako kintoak aterako dira Eskoriatzan. Irudian, aurretik ateratako talde bat.

ARTXIBOA

tik hartu zutela ere esan du. "Han joan zen urtean irten ziren eta ideia ona iruditu zitzaigun", adierazi du.

Amaitu aurretik, beti bezala, arin-arina eta fandangoa dantzatuko dute guztiek batera Herriko plazan.

Baserrietan lortutako produktu bikainekin bazkari eta aitari ederretaz gozatuko dute. Jasotako arrautza, txorizo eta bestelako jakiekin herriko taberna batera joango dira kintoak. Han prestatzeko eskatu diote sukaldariari.

ARETXABALETAN ABESBATZA

Bestalde, Aretxabaletan kaleetan ere koplak entzun ahal izango dira bihar. Aretxabaleta Abesbatzako eta Leizarra Musika Eskolako haur abesbatzako kideak eta trikitilariak koplak abestera aterako dira.

ARETXABALETA > LANAK

Durana eta Errekabarren kaleen arteko pasabidea ekainerako amaituko dute

Amaral enpresak egingo ditu lanak; aste honetan hasi eta hiru hilabetez luzatuko direla azaldu du Udalak

M.B. > ARETXABALETA

Durana kaleko 28. atartetik Errekabarren kalera oinezkoendako pasabidea egingo du Udalak. Joan zen martitzeneko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean proiektu horren lanen esleipena azaldu zen: Amaral enpresa arduratuko da pasabide hori egiteaz.

Udalak jakinarazi duenez, aste honetan hasiko da pasabidea eraikitzen. Hiru hilabete izango ditu Amaral enpresak hori egiteko. Proiektu horren aurrekontua 219.000 eurokoa dela ere azaldu du.



LOTURA Durana eta Errekabarren kaleak lotuko ditu.

JOSETXO ARANZABAL

Udaletik azaldu dutenez, pasabide horren bidez, eliza, Zaharren egoitza eta osasun etxerako bidea murriztu ahal izango da. Pasabideak 35 metroko luzera izango du eta lehenengo 20 metroak, Durana kaleko

28. zenbakian kokatutako eraikinaren azpitik igaroko dira. Lurzorua granitozkoa izango da eta paretak harrizkoak. Argiztapenari garrantzia handia eman zaiola eta txoko ilunik ez dela egongo esan du Udalak.

ESKORIATZA > USTEZKO IRREGULARTASUNAK

Iñaki Pierrugues da ustezko irregulartasunen ikerketa batzordeko presidentea

Joan zen eguaztenean izendatu zuten Pierrugues presidente; gaur, arratsaldean, lehenengo batzarra egingo du batzordeak

Luis Merino (EB-Berdeak) eta Leire Okarantza (Elizateak).

Lehenengo bilera gaur arratsaldean egingo dute. Aurrerantzean tratatu behar diren gaiak eta bilerak zer maiztasunarekin egingo diren erabakiko dute.

M.B. > ESKORIATZA

Aurreko agintaldian Udalan izandako ustezko kontratazio irregulartasunak aztertzeke ikerketa batzordea osatu zuten abenduan. Hilabeteko geldiuonearen ondorioz, eguaztenean, batzordeko presidentea aukera zuten. PSE-EEko zinegotzi Iñaki Pierruguesek hartu du kargua. Idazkaria, berriz, Udalekoa izango da.

Pierruguesekin batera, udal talde bakoitzak ordezkari bana izango du: Ander Agiriano (EAE-ANV), Aitor Urrutia (EA), Juan

IRIARTE

Umeen denda

Helduen lantzeria



Durana 8
Tel.: 943 79 10 96
ARETXABALETA

ELGETA > AURKEZPENA

Udalak 'Barne barnetik Elgeta' izeneko DVDa aurkeztuko du eguenean, hilak 7

Espaloian aurkeztuko dute, 20:00etan, 25 minutuko iraupena duen ikus-entzunezkoa

Galdare enpresak egindako lana salgai dago dagoeneko 5 euroren truke udaletxean

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA

Eguenean, hilaren 7an, aurkeztuko du Udalak Espaloia Kafe Antzokian *Barne barnetik Elgeta* delako ikus-entzunezkoa. Galdare 19.90 enpresak egin du lana azken bi urteotan herrian jasotako irudiekin.

Lanak 25 minutuko iraupena dauka eta Espaloia Kafe Antzokian egingo dute aurkezpen ekitaldia 20:00etan. Bertan izango dira bai udal arduradunak ordezkariek. Herritar guztiak daude bertara gonbidatuak.

Gipuzkoa osoan beste 30 herrirendako egin du Galdare enpresak antzerako ikus-entzunezkoa. Tartean aurkitzen dira Antzuola, Aretxabaleta, Arrasate edo Bergara.



IKUS-ENTZUNEZKOA Besteak beste, turismo promoziorako erabiliko dute Elgetari buruzko DVDa.

JOSETXO ARANZABAL

BOST EUROTAN SALGAI

"Mila ale kaleratuko ditugu eta 5 euroren truke jarri ditugu salgai hainbat tokitan", adierazi du Edurne Alberdi Udaleko Turismo zinegotziak.

Ikus-entzunezkoan Elgetako paisaiak, jendea, tradizioak, ohi-turak eta aisia agertzen dira, besteak beste. Aurreko agintalditik datorren enkargua da *Barne barnetik Elgeta* DVDa. Beste batzuen

artean turismo promoziorako ere erabiliko dute euskarria udaletxean. Proiektuak 10.440 euroko aurrekontua dauka. DVDa pantaila handian ikusteko aukera egongo da eguenean, 20:00etan.

ANTZUOLA

Santa Ageda eskean ibiliko dira kintoak

Gaur goizean herriko baserrietan barrena jardungo dute kantuan

IRATI AGIRREAZALDEGI > ANTZUOLA

Gaur, otsailak 4, Santa Ageda bezpera da. Urteroko ohi-turari jarraituz, kintoak koplak kantari ibiliko dira baserrietan. Bapogosaldu ostean, bi taldetan banatu eta batzuek gorako bidea hartuko dute: Basalde, Irimoegibarrena eta Irimoegigogena auzoetara joateko. Besteek behera joko dute, Uzarragara eta Lizarragara.

Eguerdian kalean jardungo dute kantuan eta elkarrekin bazkaldu ondoren, herri inguruko baserrietan ibiliko dira eskean. Gauean, berri, kintoek Idiazabalgo jaietara egingo dute buelta.

ILUNTZEAN KALEAN

Kintoak ez dira kantuan ibiliko diren bakarrak, ordea. Antzuolako abesbatzakoak ere irtengo dira. Herritarrek gonbidatu dituzte kantuan ateratzeko, 18:30ean plazatik. Batutako dirua Anelkar elkartearendako izango da.

LEINTZ GATZAGA > AUTOBUS ZERBITZUA

Txartel bakarra eskuratzeko orriak laster iritsiko dira herrira

Eskoriatzako Dorleta liburu-dendan ere orain ez daukate eskaera orririk, aldatu egin behar dituztelako

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA

Egubakoitza ezker dago abian txartel bakarrarekin hirietara joateko aukera. Hala, Pesak dituen autobus zerbitzu gehiengatik erabil daiteke txartel bakarra, eta %40ko beherapena eskaintzen du lehen bidaiatik. Pozik hartu dute albistea Gatzagan, herriko autobus zerbitzua hobetzearekin batera –oraindik zer hobetua egon arren– prezioa murrizteko aukera iritsi delako.

Txartel bakarra eskuratzeko norberak egin behar du eskaera, eta Gatzagan oraindik ez daukate eskaera orririk. Eskoriatzako Dorleta liburu-dendan udazke-



AUTOBUSA Gasteiztik datorren autobusa Gatzagara ailegaten.

M.A.

naz geroztik izan dituzte, baina orain ez. Orriak aldatu egin behar dituztela eta eroan egin dizkiote.

Gatzagako Udalak badu orriak herrira ekartzeko asmoa: "Geuk jakinarazi behar dugu Mankomunitatean non eskuratu

behar diren, eta horren zain daude. Herritarrek galdezka ditugu, eta lehenbailehen erabaki behar dugu", argitu du Eusebio Villar alkateak, eta aukera handirik ez daukatela gaineratu du: udaletxean bertan edo Labidea dendan.

ARAMAIO > HIRIGINTZA

Auzoetako eta Ibarako mapa berria egiten dabilta Udala eta auzo alkateak

2006ko lurzorua legeak eragin zuzena izango du datozen zortzi urteetarako Udala lantzen ari den hirigintza plan orokorrean

ARRITXU BARRUSO > ARAMAIO

Datozen zortzi urteetarako Aramaioko hirigintza plana lantzen ari da Udala. Auzoetako eta Ibarako mapa berria lantzen ari da, alegia. Kontua da plan horretan eragin zuzena izango duela 2006ko lurzorua legeak, eta batez ere auzuneetan. Izan ere, lege horrek landa nukleoak eta herriguneen arteko bereizketa egiten du. Landa nukleoak dira 25 etxe baino gutxiago dituzten guneak. Horietan, etxe berriak eraikitzeke legeak muga bat ezartzen du; ezin izango dira auzoak dauzkan etxe kopuruaren erdiak baino gehiago eraiki. Edozelan ere, landa nukleoetan inoiz ezin izango dira 25 etxe baino gehiago egon.

Lege horren arabera, Aramaioko auzo guztiak landa nukleoak lirateke. Udalak uste du lege horrek ezartzen dituen mugek ezinezona sor dezaketela auzoetako bizilagunengan. Dena dela, hirigintza batzordea argi utzi nahi izan dute Udalak ez duela inolako zerikusirik muga horiekin. Hori horrela, legea bera eta Udala auzoetarako lantzen ari den plana azaltzeko, auzo alkateekin bildu zen eguenean hirigintza batzordea. Bertan egutegi bat finkatu zuten auzo auzo euren planak azaltzeko. Datorren martitzenean hasiko dira.

Ibarako herritarrekin ere gauza bera egingo du Udalak. Bilera otsailaren 8an izango da, udaletxean, 19:00etan.

Kirola



> **ESKUBALOIA**
Bergarak 29-19 irabazi zion Urdaneta arerio zuzenari > 16



> **ESKUBALOIA**
Arrasateko Frod Mugarrik Urdulizen aurka irabazi zuen > 16



> **FUTBOLA**
Athletic-eko beteranoak nagusi Antzuolako lagunartekoan > 17



> **ELKARRIZKETA**
Arkaitz Iburguen errugbi entrenatzaileari elkarrizketa > 18

ESKALADA > OÑATIKO III. BOULDER TXAPELKETA

Lagunarteko giro goxoa III. Boulder Txapelketan

PARTE HARTZAILEAK

Guztira 19 pertsonak eman zuten izen Oñatiko III Boulder Txapelketan. Giro ederrean garatu zen

IRABAZLEAK

Lehenengo postuan gelditu ziren hamabosna punturekin Asier Etxeberria eta Jon Agirre

MIREN ARREGI > OÑATI

Lagunarteko giro onean igaro zen zapatuan, Oñatin, III. Boulder Txapelketa. Lagunartean, izan ere, Zubikoa kiroldegiko rokodromo berrian entrenatzen ibiltzen direnek antolatuta eta parte hartu zuten txapelketan. Hango txalo eta animu oihuak ziren rokodromoan sortu zen giro ederren erakusle; parte-hartzaileen esanetan ere, oso lagunarteko giroa sortu zen, eta barre algarak izan ziren nagusi txapelketan zehar.

Sailkapen fasean 19 pertsonak eman zuten izena. "Espero genuena", Sergio Maiztegi antolatzailearen hitzetan. Arrasateko bi eta Hernaniko bat izan ezik, beste guztiak ziren oñatiarrak. Guztiak ere, mutilik; neskari ez zen animatu txapelketan parte hartzera. Hori horrela, antolatzaileak pena apur batekin gelditu ziren, izan ere, Maiztegi azaldu zuenez, "neskak etortzea espero genuen, iaz bat edo beste animatu zen, baina gaurkoan ez dira azaldu. Nesken parte-hartzea bermatzeko edo, bi bloke erraz ipini ditugu, baina ez du arrakastarik izan".

TXAPELKETA, FASEKA

Sailkapen fasean, esan bezala, 19 eskalatzaile aritu ziren. Hamar bloke egin behar zituzten parte-hartzaileek, ordu beteko tartean. Blokea lehenengo saiakeran egiteak 5 puntu ematen zizkion eskalatzaileari, eta bloke bakoitzean geroz eta saiakera gehiago egin, saiakera bakoitzeko puntu bat gutxiago eskuratzen zuten. Puntuazio altuena lortu zuten zortzi gazteak pasatu ziren finalera, eta

sailkapena

FINALEKO EMAITZAK

Jon Agirre	15 puntu
Asier Etxeberria	15 puntu
Mikel Velasco	13 puntu
Anjel Lera	8 puntu
Eñaut Etxeberria	8 puntu
Jon Murillo	6 puntu
Julen Etxeberria	5 puntu
Iñaki Viejo	1 puntu

azken fase honetan, antolakuntzak ipinitako zortzi blokeak 45 minututan egitea zen gakoa. Maila altuko blokeak ziren, antza, eta inork ez zuen guztiak egiterik lortu. Hori bai, txapelketako antolatzaile Sergio Maiztegiren hitzetan, "maila ona erakutsi dute gazteek, baina, txapelketetan esperientzia falta zaiela nabari da". Kontuak kontu, gustura ibili ziren parte-hartzaileak. Txapelketaren ostean, afaritara ere joan ziren guztiak elkarrekin.

ROKODROMOAN MOZORROTUTA


Mozorroak jantzita egin zuten txapelketa. Eskalatzaileak ez ziren Aratusteetaz ahaztu, eta horrek ere, akaso, lagundu zuen giro ona, gertukoa, informala eta alaia sortzen. Txapelketaren ostean ere, afaritara mozzorroak jantzita joan ziren gehienak. Ziur bat baino gehiago hasi dela hurrengo txapelketarekin amets egiten. Ziur ez dakiguna da parte-hartzaileei bihamuna pasa ote zaien ala ez.



BOULDER TXAPELKETA Eñaut Etxeberria, bloke bat igotzen, Julen Maiztegiren begiradapean.

JOSETXO ARANZABAL

III. BOULDER TXAPELKETAKO IRABAZLEAK



Jon Agirre eta Asier Etxeberria

Lehen postuan gelditu ziren, hamabosna punturekin

Jon Agirre oñatiarra izan zen irabazleetako bat. "Oso gustura aritu naiz, baina nekeak jota amaitu dut. Sailkapeneko bloke batzuk oso errazak egin zaizkit, baina finalekoak, orokorrean, denak oso gogorrak. Txapelketa hemen eskalatzen ibiltzen garenon artekoa izan da, eta mozzorrotzeak ere giro paregabea sortu du. Gainera, oraingo rokodromo lehengoaren bikoitza da, eta askoz aukera gehiago eskaintzen ditu". Asier Etxeberria hernaniarra ere lehen postuan gelditu zen, aurrekoarekin berdinduta. "Nire burua ondo ikusi dut. Niretzat gehiegizkoak ziren blokeekin ez naiz ahalegindu ere egin, ahal nituenak egiten hasi naiz eta ondo irten zait. Lagunarteko txapelketa zenez, gainera, oso giro goxoa sortu da. Hori bai, neskak etorri izango balira, hobeto".

EUSKADIKO TXAPELKETA > BERGARA-URDANETA

Arerio zuzenari irabazita, tartea ireki du Bergarak sailkapenean

BERGARA

29-19

URDANETA

Bergara > Kapelastegi, Uribe (2), Adanondo (5), Ugalde (4), Sanchez (9), I. Najera, X. Najera, Plazaola (2), Lenisoro (2), Manuel, Larrañaga, Zangitu, Gartzia eta Agirre.

Urdaneta > Montijo (4), Azkona, Berastegi (2), Torres (2), Beurku, Fernandez (3); Kareaga (4), Uriarte, Gartzia (1), Alerru, Villanueva, Llionin (2), Losa (1) eta Ezardui.

Golak bost minuturo > 2-1, 3-2, 6-5, 7-6, 9-9, 13-11. Atsedena. 14-12, 15-15, 19-15, 22-17, 26-18, 29-19.

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA

Hil ala biziko norgehiagoka irabazi zuten zapatuan Bergarako mutilek. Loiuko Urdaneta arerio zuzenaren aurka, 29-19 nagusitu zen Muniategiren taldea; modu horretan, sailkapen orokorrean atzetik datozenekiko tartea zabaltea lortu dute bergararrek. Orain, bederatzi puntu ditu sailkapenean Bergarako taldeak.

LEHENENGO ZATIA, BERDINDUA

Partiduaren garrantziaz oharturik, etxeko mutilak gogotsu atera ziren kantzara. Baina, urduritasunak tarteko, hainbat akats egin zituzten. Hala, joko aldetik, lehenengo zatia ez zen ona izan. Bi taldeek berdintsu jokatu zuten; baina, atsedenera, etxekoak 13-11 aurretik iritsi ziren.

Bigarren zatiaren hasierako minutuetan, Urdaneta gol baka-



ERASOA Aldanondo jaurtiketa egiteko gertu Urdanetako atezainaren aurrean.

JOSETXO ARANZABAL

rera hurbildu zen markagailuan, 13-12 eta 16-15. Gero, Bergarako partiduaren jabetza hartu zuen, eta samur nagusitu zen. Zapatuan, Bergara Urdaneta baino gehiago izan zen defentsan eta, batez ere, erasoan.

Aipatzekoa da Ruben Sanchezek egin zuen lana; 9 gol sartu zituen bergararrak. Bestalde, Aldanondok bost gol egin zituen eta Lenisorok lan ona egin zuen ezker hegalean. Jokalariak gustura geratu ziren egindako lana-

rekin: "Garrantzitsua zen Urdanetari irabaztea mailari eusteko lehian jarraitzeko", esan zuen Jon Zangitu atezainak.

Datorren astean, nahi eta nahi ez irabazi beharreko lehia jokatuko dute Urolaren aurka.

EUSKADIKO TXAPELKETA > ARRASATE-URDULIZ

Atezainaren lanak garaipen erosoan ahalbideratu zuen

FORD MUGARRI ARRASATE

24-19

URDULIZ

A.E. > ARRASATE

Hilabete partidurik irabazi barik egon ostean, Arrasatek garaipen garrantzitsua lortu zuen egubakoitzean Urdulizen aurka. Defentsan egindako lanari eta, batez ere, Igor Egañak atepan egindako lan bikainari esker, Beñardo Balerdik zuzentzen duen taldeak bi puntu lortu zituen.

Aurtengo denboraldian jokatutako partidu borobilena izan zen egubakoitzekoa. Hasieran oso ondo ibili ziren; lehenengo zatian, 8 eta 9 goleko aldea izan zuten markagailuan. Bukaera alderako, erritmoa apur bat jaitsi zuten baina, hala ere, markagailuko aldeari eusteko gai izan ziren. Fertxu Rodriguez bigarren entrenatzaile eta jokalariaren esanetan, "sailkapenari begira lasaitasuna eman digun garaipena izan da". Izan ere, azken asteetako emaitzen ondoren, beheko taldeak sailkapeneko aldea murrizten ari ziren. Datorren astean, Bizkaiko Romo taldearen aurka jokatuko dute arrasatearrek.



LEHIA Egubakoitzean jokatu zuten arrasatearrek.

JOSETXO ARANZABAL

EUSKADIKO TXAP.

Elgoibarko neskek gehiago izan ziren

ELGOIBAR

26-22

ALOÑA MENDI

A.E. > BERGARA

Aloña Mendiko neskek ezin izan zuten punturik lortu Elgoibarren aurka zapatuan jokatutako partiduan. Hala, azken asteetan izan duen joera ona eten du Maitane Ruizek entrenatzen duen taldeak.

Elgoibarko taldea gehiago izan zen lehia guztian zehar. Hala ere, lehenengo zatian, markagailua nahiko berdintsua izan; denbora guztian, gol bateko aldea egon zen. Batzutan Elgoibarkoen alde eta beste batzutan oñatiarren alde.

KANPOKO JAURTIKETAK

Maitane Ruiz pozik zegoen taldeak Elgoibarren egindako lanarekin. "Beste partidu batzuetan baino intentsitate txikiagoarekin jokatu dugu, baina taldeak ondo borrokatu du", azaldu zuen partidu amaieran. "Azkenean, urduritasuna nagusitu da gure taldekideen artean. Bestalde, onartu behar da Elgoibar gu baino zerbait gehiago dela gaur egun", gaineratu zuen Ruizek.

Batez ere, kanpoko jaurtiketan izan zen gehiago Elgoibarko taldea.

Sailkapenari begira, oñatiarrak zazpigarren postuan daude eta 10 puntu dituzte. Datorren astean ez da jardunaldirik jokatuko; hurrengo partidua, otsailaren 9an jokatuko du Aloña Mendik, Zubikoa kiroldegian, hain zuzen.

emaitzak

MAILAZ MAILA

EUSKADIKO TXAPELKETA

Ford Mugarrí-Urduliz	24-19
Bergara-Urdaneta	29-19

EUSKADIKO TXAPELKETA, NESKAK

Elgoibar-Aloña Mendi	26-22
----------------------	-------

1. TERRITORIALA

Arrasate eskubaloio-Urola	atzeratuta
---------------------------	------------

GAZTE MUTILAK

Urola-Aloña Mendi	37-26
-------------------	-------

KADETE MUTILAK

Jauja Akilape-Aloña Mendi	32-28
Irurena-Bergara	38-20

FEDERAZIO SARIA

Arrasate-Arrate	9-34
Verkol Aloña-Ereintza	13-16
Bergara-Egia	15-20

ANTZUOLA-ATHLETIC > OMENALDIA

Azkenean, Athletic-eko beteteranoak nagusitu ziren Antzuolako en aurrean

Zale mordoa joan zen Estalara Antzuolako eta Athletic-eko beteteranoek Xabier Barkeroren omenez jokatutako partidua ikustera

ARANTZAZU EZKIBEL > ANTZUOLA

Lehia guztian zehar Antzuolako mutilak aurretik izan ziren arren, azkenean, Athletic-eko beteteranoak nagusitu ziren zapatuan Estalan. Argi geratu zen gaztetasuna baino garrantzitsuagoa dela kalitatea. Izan ere, Bilboko taldean jokatu zuten jokalariai adinez Antzuolakoak baino nagusiagoak ziren arren, profesionalak izandakoak dira, eta hori nabaritu egiten da.

GUERREROK KALE EGIN ZUEN

Zale mordoa batu zen Estalan beteteranoen arteko lagunartekoa ikusteko. Ikusmina piztu zuen herrian lehiak; batez ere, jokala-



LEHIA Antzuolako eta Athletic-eko jokalariai partiduko une batean.

JOSETXO ARANZABAL

ri ospetsuak etorriko zirela iragarri zelako, besteak beste, Julen Guerrero. Baina, azkenean, Portugaletekoak ezin izan zuen Esta-

lara etorri. Azken orduko beste konpromiso bat sortu zitzaion, eta zaleak Guerrero ikusteko gogoarekin geratu ziren.

Etorri zirenen artean, Imanol Etzeberria atezaina zegoen; hark ama Antzuolako du. Hortaz, gogotsu ibili zen lehian.

ETXEKO TALDEA AURRETIK

Partiduko emaitza gutxienekoa izan zen zapatuan; garrantzitsuen Xabier Barkerori egindako omenaldia izan zen. Antzuolako taldean, erregional mailan Barkeroren taldekide izandako jokalariai elkartu ziren; tartean, gaur egun oraindik ere jokatzen duten lau jokalaria zeuden. Nagusienak 42 urte zituen.

Hala, lehia ondo hasi zen etxe-koentzat; Andoni Azkargortak, gaur egungo entrenatzaileak, sartu zuen lehenengo gola. Berdinketa Joseba Agirrek egin zuen. Atsedenen aurretik, Xabi Agirrek 2-1 aurreratu zuen etxe-ko taldea. Gero, aldagelatik bueltan, bilbotarrak nagusi izan ziren; Joseba Agirrek bigarrena egin zuen, eta De Diegok sartu zuen hirugarrena.

OROIGARRIA

Athletic-ek txapeldunaren oroi-garria eta Udalak emandako herriko liburu sorta jaso zuen. Barkeroren senideek, berriz, Athletic-ek emandako koadro bat jaso zuten, jokalariek sinatutako kamisetarekin.

Maulanda
merenderoa

Eguneko
menua

Maulanda auzoa ESKORIATZA
Tel.: 943 71 47 20 eta 943 71 54 56

Errugbian jokatzen 16 urterekin hasi zen Arkaitz Iburguen arrasatearra. Gero, Sevillan eta

Elchen hartu zituen entrenatzaile izateko ikastaroak; eta, gaur egun, Arrasateko senior maila-

ko taldeko entrenatzailea da. Taldearen lanarekin gusturagoela aitortu digu Iburgue-

nek. Gainera, Mojategiko zelai berriaren onurak garrantzitsuak izan direla esan digu.

Arkaitz Iburguen > Errugbi entrenatzailea

"Kontaktua handiko kirola da errugbia, baina ez da uste adinako gogorra"

ARANTZAZU EZKIBEL > ARRASATE

Joan den aste bukaeran, ez zuten jardunaldirik jokatu errugbiko senior mailako mutilek. Aratuste jaiak aprobetxatu zituzten jai hartzeko. Hala, Arkaitz Iburguen entrenatzailearen egoteko tartea izan dugu, errugbiar berba egiteko.

Noiz eta zela hasi zinen errugbian jokatzen?

Hasi nintzen 16 urterekin. Aurretik, beste guztiak bezala, futbolekin ibili nintzen, baina ez nuen jarraitu. Gero, eskubaloian ere ibili nintzen denbora batez, baina oso txarra nintzen, eta hura ere utzi egin nuen. Hortaz, errugbiarekin saiatu nintzen azkenik. Lehengusu batek animatu ninduen errugbian jokatzerara, eta hala hasi nintzen. Gaur arte, errugbian ibili naiz; tartean, geldi ere egon naiz, lesioak tarteko.

Orain, taldeko entrenatzailea zara.

Orain dela bi urte, jokalariek batzuei aukera eskaini ziguten Sevillara joateko, entrenatzaile ikastaro bat egitera, eta hara joatea erabaki nuen nik. Aste beteko ikastaroa izan zen; lanean jai eskatu nuen eta Sevillara joan nintzen beste bi lagunekin batera. Espainiako federazioko jende ezagunak eman zizkigun eskolak.

Hurrengo urtean, berriz, Elchera joan nintzen, 2. mailako titulua ateratzera. Orduan, bakarrik joan nintzen.

Jokalariek izatetik, entrenatzaile izatera pasa zinen. Gogorra da jardun hori?

Orain ere fitxa badaukat eta joka dezaket. Baina, gustura nabil entrenatzaile lanetan; hala ere, inbidia ematen du besteak jokotik irabazteko. Hori da dagoen txarrena; partidu bat ikusten nagoenen, jokatzeko gogoia izaten dudala. Baina, era berean, nik ez dut besteak bezala entrenatzen; hortaz, badakit non dauden nire mugak, eta badakit ere ezin dudala besteen intentsitate berean partidurik jokatu.

Errugbia, ematen duen bezain kirol gogorra da?

Ez, ez da hain gogorra. Kanpotik ikusita, kirol bortitza dela ematen du; baina, fisikoki prepartatuta bazaude, ez da inongo arazorik izaten. Kontaktua handiko kirola da, hori argi dago, baina, norberak bere burua kontrolatzen badu, ez dago arazorik. Ger-



Akaitz Iburguen, Iturripe aurrealdean.

ARANTZAZU EZKIBEL

GOGORTASUNA

"Errugbia ez da ematen duen bezain kirol gogorra; orain, asko arautu da"

TALDE LANA

"Ezinbestekoa da talde lana. Baloiarekin doan beste bi jokalariek behar dituzte alboak"

MOJATEGI

"Zelai berriarekin, zuzendaritzak itxaropen berriak ditu errugbiarekin herrian"

tatu litekeena da aurkariaren jarrera zirikatzailea izatea, baina, horregatik nabarmentzen dut norbere buruarekiko kontrola ezinbestekoa dela. Eta, nola ez, nire jokalariek jarrera ona izateko eskatzen diet.

Honakoa dio esaera batek: zaldunen kirol basatia dela errugbia.

Bai, baina horiek lehengo kontuak dira. Orain, joko asko arautu da. Badago kontaktua, baina ez lehen bestekoa. Lehengo jokotik, askotan, baloia geldi egoten zen; eta, ostikoak gehiago izaten ziren. Orain, jokalariek min gutxiago har dezaten, hainbat arau berri daude. Estrategia jokoak da kontaktua joko baina gehiago. Burua erabili behar da.

Errugbia ez da oso kirol eza-guna gure bailaran.

Egia esan, ez. Arrasaten beste herrietan baino zaletasun han-

diagoa dago, eta herritarrek badakite badagoela errugbi taldea Arrasaten. Pena bat da zabalduago ez egotea, oso kirol polita da eta. Hala ere, orain daukagun kirol instalazio berriarekin, errugbia zerbait gehiago bultzatu gura dugu. Jende gehiago etortzen da partiduetara, eta errugbi eskola bat ere sortu dugu.

Hemen aurkaririk ez dagoenez, kanpora askotan joan behar duzue.

Ez gara horrenbeste mugitzen. Durangon, Elorrioren eta Arratian badaude taldeak. Bilbo, Irun, Zarautz eta beste hainbat herrietara mugitu gara. Aurten, Santanderko taldea ere Euskadiko txapelketan sartu da, eta haiek ere gure aurka jokatuko dute.

Zer behar du errugbi jokalarion batek?

Jokatzeko gogoia izatea da ezinbestekoa. Baita, non sartu

zaren argi izatea. Errugbia diziplina handiko kirola da. Ez da ohikoa, baina, muturreko bat edo beste hartu dezakezu partidu batean; hortaz, hori gerta daitekeela jakin behar duzu eta, hori gertatzen denean, zela erantzun. Ezin zara epaileari aurre egiten hasi. Zure burua kontrolatzeko gauza izan behar duzu.

Fisikoa edo teknika, zer da garrantzitsuagoa?

Indarra izatea garrantzitsua da, baina ez da ezinbestekoa. Aurrealdean, adibidez, pisua izatea garrantzitsua da. Baina ez da gauza bera 120 kilo eta sendo dagoen bat edo 120 kilo izan eta indarririk ez duen bat. Hortaz, entrenamenduen bitartez indarra hartzen joatea ezinbestekoa da. Gero, gainera, denek dute lekua taldean. Errugbian 15 jokalarik osatzen dute taldea eta postu bakoitzean egoera ezberdinetako jendea gura izaten da.

Talde lana garrantzitsua da errugbian.

Bai, ezinbestekoa izaten da talde lana. Errugbian ezin da partidurik irabazi jokalariek bakarrik. Entrenamenduetan behin eta berriz errepikatzen dut hori: bakarrik ez joateko. Jokalariek bakarrik ez du ezer egiten; baloia galdu eta zartadaren bat jaso, hori besterik ez. Beti gura duzu, gutxienez, bi jokalariren laguntza aldamenetan. Gero, atzean, taldea dago.

Kirol hau ezagutzen ez duenak ez du bereizten, baina errugbian taktika handiko jokaldiak egiten dira. Oso joko polita da.

Talde giroa sortzeko aukera ona da nazioarteko txapelketa, ezta?

Bai, udaberri aldera antolatzen dugu. Gure artean ondo pasatzeko modu egokia izaten da. Gainera, kanpoko talde mordoa etortzen da, eta horrek ere giroa egiten du txapelketa. Herriko plazan, karpak batean, garagardo feria egiten da eta, bertan, afaltzeko giro egokia sortzen da.

Zelai aldaketak ere mesede egingo zizuen.

Ona izan da alde guztietatik, bai. Zuzendaritza taldeak planteamendua aldatu du Mojategiko instalazio berrien arabera. Orain, beste itxaropen bat du zuzendaritzak. Ikusleak ere gehiago etortzen dira Mojategiko zelaira.

LEINTZ BAILARA

Aratuste jai barik, eskola kirol jarduerak izan dituzte txikiek

MINISASKIBALOA Iturripera joan ziren gaztetxoek minisaskibaloian jokatzeko aukera izan zuten zapatuan

2. JARDUNALDIA Leintz bailarako neska-mutikoen aurrekiroleko 2. jardunaldia jokatu dute asteburuon

NESKAK ETA MUTILAK Eskola kiroleko jardunaldietan, neskez eta mutilez osatutako taldeak jokatzen dute

ARANTZAZU EZKIBEL > ARRASATE

Ibarreko neska-mutikoen ez dute Aratuste jairik izan aste bukarran; betiko martxan, zapatuan, eskola kiroleko jardunaldiak jokatu zituzten. Arrasateko Iturripera kiroldegian, 3. eta 4. mailako neska-mutikoak elkartu ziren, benjamin mailakoak. Saskibaloian jokatzeko gogoz hurbildu ziren denak Iturripera; hala, gogoa jarri zuten jokaldietan, eta batzuek irabazi eta beste batzuek galdu arren, denak pozik atera ziren Iturripera kiroldegitik.

Gainera, zapatuan, Iturriperako harmailetan guraso mordoa egon zen etxe txiki gorabeherak ikusten. Gehiago edo gutxiago, denek animatu zuten euren taldea.

ELKARRI ANIMUAK EMAN

Horrelako partiduetan, ondo pasatzea eta kirolaren onurak barneratzea da garrantzitsua. Hala ere, beti izaten da galtzea gustatzen ez zaion norbait. Horrelako kasuetan, taldekideek elkarri ematen dizkieten animuak ezinbestekoak izaten dira; baita eskola kiroleko arduradunen lana ere.

"Gu ez gera haserretzen. Baina beti izaten da gozoagoa irabaztea. Amorrua hartzen dugu aurkariak joko zikina egiten dutenean. Hala ere, lagunak gara eta ez gera haserretzen", esan zigun Iturripera hurbildutako neska talde batek. Izan ere, jarduera hauen oinarria ondo pasatzea eta irabazten eta galtzen ikastea izaten da.



Gazteluondo 3B. Mikel, Andoni, Amaia, Josu, Beñat, Jon, Asier M., Markel, Asier E., eta Max dira taldekideak.



Aramaio eta Mesedeetako Andra Mari 3. Ander, Mikel, David, Endika, Unai, Edu, Teresa, Unai, Mikel eta Unai.



Almen 3A. Ander, Mikel, Julen Josu, Josu, Haritz, Miren eta Asier dira Almen 3A taldeko kideak.



Almen 3B. Ixak, Ur, Nestor, Sergio, Lander, Lander, Mikel, Kimetz, Aitor eta Josu dira taldekideak.

INOIZ HASERRETZEN ZARETE PARTIDUETAN?



June eta Ane
Arrasate



Idurre, Arane eta Leire
Arrasate



Ainitze eta Nerea
Arrasate

"Egia esan, berdin digu galtzea edo irabaztea; baina, beti izaten da politagoa irabaztea. Galdu ezker, ez gara haserretzen. Batzuetan amorrua ematen digu aurkariak izan dezakeen jarrerak, baina horregatik ez gara haserretzen. Izan ere, denak lagunak gara eta, partidua amaitutakoan, elkarrekin joaten gara etxera. Hala ere, noiz edo noiz haserretu izan gara".

"Gure kasuan, gehiagotan galdu egiten dugu, irabazi baino. Hortaz, ez gara haserretzen. Badakigu partidua irabaztera atera behar garela eta guk ahal dugun dena egiten dugu. Baina, beti ezin da irabazi! Horregatik, ez gara haserretzen partidua amaitutakoan. Batzuetan, ez gara ados egoten epailearen erabakiekin, baina errespetatu egiten ditugu. Gehien amorratzen gaituena 4. mailako taldeen aurka jokatzeko izaten da. Izan ere, gu 3. mailako taldea gara".

"Gu ere ez gara haserretzen, berdin digu irabazi edo galdu. Baina, amorratzen gaituena da, aurkariak zikin jokatu duenean, eskua ematera joatea. Hori esaten digute arduradunek, eskua emateko. Baina, bai zera! Falta zaiguna... horrek haserrarazi egiten gaitu. Baita nagusiagoen aurka jokatzeko ere. Beti gu baino urte bete nagusiagoen aurka jokatzeko egokitzen zaigu".



**Hedabide
guztietarako
telefono berria
eta bakarra
943 25 05 05**



Goienkaria ASTELEHENKO **Goienkaria**





> **DISKOA**
Arrasateko 25 talderen diskoa aurkeztu zuten egubakoitzean > 24



> **PUNKA**
UK Subs, Vibrators eta Total Chaos-ek jaialdi ederra egin zuten > 27



> **ARATUSTEAK**
Mexikoren gaineko Aratuste-kontzertua egin zuten Bergaran > 27



> **ELKARRIZKETA**
Arritxu Barruso GOITBko kazetariarekin berbetan > 29

JAIK > ARATUSTEAK

KARROZA LANDUAK

Aretxabaletan ez ezik, beste herrietan ere lan ikusgarriak zeuden

BALORAZIO ONA

Jai giroan ibilitakoak ezezik, antolatzaileak ere gustura

URTEROKO PIRATAK

Modaz pasatzen ez den mozorroa; aurten ere, piratak herri guztietan

AITZIBER ARANBURUZABALA > BERGARA
Sekulako giroa izan da ibarreko herri guztietan; eguraldiaren kolore grisa ezkutuan geratu da mozorroen kolore eta mozorrotuen jai giroare akin konparatuz. Hotz egin du, eta tarteka euri zaparradak ere izan dira, baina Aratusteetarako grina gailendu da herri guztietan.

Egubakoitzean Elgetan ospatu zituzten; zapatuan, berriz, Arrasaten, Bergaran, Eskoriatzan, Aramaion eta Leintz Gatzagan; atzo, domeka, ostera, Aretxabaletan eta Antzuolan.

MAILA ALTUA ARETXABALETAN

Copreci lantegiko aparkalekutik abiatu zen mozorroen desfilea eguerdiko hamabietan. Ikusle asko bildu zen zein baino zein ikusgarriagoak ziren parte-hartzaileak ikustera. Etxeko lanak ondo eginda zituztela erakutsi zuten guztiek, ez dira-eta azken orduan prestatzen han zeuden muntaiak. Hona hemen, bada, gure begiek eta kamerek jaso zituzten irudi batzuk.

Zelabaixotako koadrilakoak Heriotzaren Trenean agertu ziren, banpiro eta pertsonaia bel-durgarrien paperean. K23koak, berriz, Ertzaintzaren musika banda bilakatuta. Marigorringo txiki eta handiak ere bazeuden aterpe eta guzti. *Playboy*-ko neska cadillac beltz dotorean zihutzen xanpain kopa bana eskuztan zutela. Ez ziren falta, ez, piratak, horietako batzuk kutxa eta guzti. Barradun tabernari txikiak ere ikusi genituen, eta baita Afrikako beltzak eta sorginak ere. Ijitoak kamioian, diskoteka ibiltaria, zanpantzarrak, haur txikiak bizikleta gainean...

Aste bukaerako Aratusteak



ERROMATARRAK Argazkiko koadrila katapulta eta guzti irten zen, eta katapulta bazebilen, gainera.

JOSETXO ARANZABAL

Erdiko kalera hurbilduta, motor usaina eta kea zen nagusi. Aurrez ikusi gabeko batzuk gehitu ziren desfilea; horien artean, UDAko koadrila handia, Ipar Polotik heldu berri: eskimalak tri-neo eta igluarekin, pinguinoak txirristan jolasten...

Aratusteetan duten tradizioari utsiz, aurten ere aretxabale-tarrek maila handia eman dute.

Sariei dagokionez, helduen kategorian hauek izan ziren irabazleak, lehenengo saritik bosgarrenera: *Playboy* neska; Georgie Dann-en txiringittoa; sumo eta geishak; marigorringoak; eta zorroztailea; eta gazteetan, 80ko hamarkadako koadrila, harriketarrak, neska pintoreak, haur txikiak bizikleta gainean eta Larri-noko sorginak.

ARRASATEN ERE MUNTAIA LANDUAK
Arrasatearrak ere ez ziren motz gelditu, mozorrotutako jende asko eta landutako karroza ugari, horien artean: Super Mario Bros bideojokoko pertsonaiak gazteluarekin; Asterix, Obelix eta erromatarrak, katapulta eta guzti; piratak itsasontziarekin, bilingoak itsasontzian, eta trogloditak tronkomobilean...

Zapatuan 11:30ean hasi zuten jai, *Familiaren aldeko foru*-ko kide legez jantzitakoak, Iraitz Agirrerren pregoiarekin. Euripean eta batukadaren doinuekin tabernaz taberna ibili ziren Uarkapen bazkaldu aurretik. Gero, plazarako bidea hartu zuten kalejiran, han sariak banatzeko.

(22. orrian jarraitzen du)

Aste bukaerako Aratusteak

(21. orritik dator)

Hiru izan ziren antolatzaileen batzordeak banatu zituen sariak: taberna, koadrila eta karroza onenei. Hori horrela, komisioak aspalditik erabakita zuten moduan, laster itxiko dutela-eta, omenaldi gisa, Biona tabernari eman zioten sardina-garaikurra eta urdaiazpikoa. Koadrila onenaren saria moto- rreroentzat izan zen; jasotako garaikur eta urdaiazpikoarekin batera, dato- rren urtean batzordeari jaia anto- latzen laguntzea egokitu zaie. Karroza onenari dagokionez, piraten itsasontziari eman zioten. Sariak sari, antolatzaileen batzordeak jaso zuen onena, herritarren parte-hartzea kontuan hartuta.

BERGARAN ERE, GIRO ONA

Zapatu eguerdian, dagoeneko mozorroak baziren Bergarako kaleetan, baina arratsaldetik aurrera animatu ziren herritar gehienak. Pirritx eta Porrotx pailazoen ikuskizunera joandako gazte eta haurrek kolore biziz bete zuten frontoia.

Iluntzean, ostera, San Martin Plaza bihurtu zen mozorroen topaleku, handik abiatu zen-eta Udalak, Bedelkarreko merkatarien laguntzarekin, lehenengo aldiz antolatutako mozorro kale- jira. The Txortains txarangaren laguntzarekin eta lehiaketako epaimahaikideen begidarapean, herriko kaleak zeharkatu zituzten. Bakeroek, Labegarrietako langileek, musikariek eta beste hainbatek parte hartu zuten mozorro kalejiran. Gauerdian ziren Bedelkarrekoak irabazle- ri, Labegarrietako langileei, hain zuzen ere, saria ematekoak, bai- na, koordinazio arazo bat medio, irabazleek ez zuten saria jasotze- rik izan. Astean jasoko dutela agindu dute Bedelkarrekoek.

Hotzari aurre eginez, ederto girotu zuten bergararrek zapatu gaua. Jende asko mozorrotuta, baita tabernak ere.



ANTZUOLA Mutilek sorgin dantza egin zuten.

JOSETXO ARANZABAL



BERGARA Aranzadiko ikasleak, desfilean egubakoitzean.

JOSETXO ARANZABAL



ARRASATE Giro ederra herri bazkarian.

JOSETXO ARANZABAL



ZALDUNAK Borrokatzera baino gehiago, ondo pasatzera irten ziren hauek.

JOSETXO ARANZABAL



GATZAGA Umeak, protagonista.

EDORTA ARANA



K23 KOADRILA Ertzaintzaren txarangaren emakume asko ikusi genituen.

AITZIBER ARANBURUZABALA



PIRATAK Eskoriatza piratek hartu zuten zabatu gauean.

JOSETXO ARANZABAL



PIRITX ETA PORROTX Umeak mozorrotuta joan ziren zapatuan pailazoak ikustera, Bergaran.

AITZIBER ARANBURUZABALA



OÑATI Luzaideko dantzak egin zituzten.

IÑIGO BIAIN



MAGIA Elgetan magoak ikusi genituen.

JOSETXO ARANZABAL



MEDUSAK Itsasotik Aramaioa etorri ziren zapatuan.

ROSA MONDRAGON



INDARRA Jedi ume eta helduak zapatu gauean Bergaran.

JOSETXO ARANZABAL



SUA Mariaren Lagundiko ikasleak, Bergaran.

J. ARANZABAL



ESKORIATZA Munduko Herriak taldeak, sari berezia.

J. ARANZABAL



TXIRINGITOA Georgie Dann Aretxabaletako giroa berotzen.

JOSETXO ARANZABAL



UDA Ipar poloa irudikatu zuten UDAkoek.

AITZIBER ARANBURUZABALA



ELGETA Egubakoitzeko mozorro kalejira.

JOSETXO ARANZABAL

OÑATI

Luzaideko dantzak, giro bustia alaituz

Eguraldiak larregi lagundu ez bazuen ere, Oñatiko Oñatz dantza taldeak antolatutako Luzaideko - Inauteriek izugarrizko arrakasta izan zuten. 140 bat lagunek girotu zituzten kaleak egun guztian zehar, eta iluntzean, Foruen Plazan, herritar mordoak bildu zituzten.

ESKORIATZA

19 taldek hartu zuten parte desfilean

19 taldek hartu zuten parte Eskoriatzako desfilean. Desfilea egiten zen lehen aldia zen. Mozorro eta koreografia onak egin zituzten eskoriatzarrek. Luis Ezeiza herri eskolako guraso elkartekoek eskuratu zuten lehen saria, pirataz jantzita, itsasontzi eta guzti.

ANTZUOLA, ELGETA, ARAMAIO ETA LEINTZ GATZAGA

Mozorroak, dantza eta ordu txikietara arteko parrandak

Antzuolan, goizean goizetik, herrian bi dantza talde ibili ziren atzo, domeka, kaleak alaitzen. Talde batek sorgin dantza egin zuen, herriko Aratusteetako ikur diren tximino, hartz, eta hezitzailearekin batera. Beste taldea emakume dantzarien taldea zen. 12:00etan, talde guztiak Herriko Plazan elkartu eta guztiek batera dantza egin zuten.

Elgetan, egubakoitzean ospatu zituzten Aratusteak. Arratsaldean umeendako diskoteka egin zuten Espaloian, eta gauean herriko gazteak eta nagusiak izan ziren pro-

tagonista. Goizeko ordu txikiak arte luzatu zen gaua elgetarrentzat, besteak beste, Espaloian dantzan.

Leintz Gatzagan bestalde, altxorraren bila jolas egin zuten umeek arratsaldean. Denetarikoz mozorroak ikusi zitezkeen umeen artean: Sherlock Holmes, magoak, Super Mario Bros eta beste hainbat. Nagusien afarian ere giro oso ona egon zen; musika ere izan zuten.

Aramaion, zapatuan jende ugari bildu zen Herriko Plazan, eta giro ederra sortu zen. Mozorro lehiaketako originaltasunaren saria jaso zuen Air Panda taldeak.



BULTZATZAILEAK, AURKEZPENEAN Egubakoitzean aurkeztu zuten 25 Hits of Mondra Underground Sounds.

IKER BARANDIARAN

MUSIKA > '25 HITS OF MONDRA UNDERGROUND SOUNDS' DISKOA

Arrasateko 25 rock talde batzen dituen diskoa kalean da

Garai bateko eta gaur egungo punk, rock-and-roll, street punk oi! estiloko taldeen bilduma da

Ekimenaren helburua herriko musika taldeak eta herria bera kanpoan ezagutaraztea da

A. ARANBURUZABALA > ARRASATE
Urtebeteko lanaren ostean, egubakoitzean aurkeztu zuten, DAT tabernan, *25 Hits of Mondra Underground Sounds*, diskoa. Jendez gainezka zegoen DAT taberna, herriko musikazale eta musikari asko hurbildu ziren-eta, diskoa eskuratu eta Enboskada taldearen kontzertuaz gozatzea. Ikusle asko kanpoan geratu ziren eta Enboskadakoek ere apenas zuten lekurik eroso jotzeko.

URTEBETEKO LANA

Aspaldiko asmoari helduz, urtarilean hasi ziren Asier Sala (Enboskada), Iker Aranburuzabala, Oier Beitia *Magu* (Des-Kontrol), Hodei Beitia (Des-Kontrol), Jon Nevado (Aggressive Combat) eta Jokin Vitoria (5 Twisters) Arrasateko musikari eta musikazaleak herriko musika taldeen disko bilduma egiten. Helburua herriko musika taldeak eta herria bera ezagutaraztea zuten. "Lanak antolatu eta lanak banatu geni-

tuen lehenengo: grabaketak, diseinua, orri digitalak, behar ziren bitartekoak aurkitu... Esperimentua berria zen guztiontzako, eta ezinbestekoa zen ondo antolatzea" esan du Asier Salak.

Autofinantzatutako diskoa da. "Prozesu osoa gure esku egon zedin nahi genuen, hasieratik bukaerara. Batzuk gidariak izan gara, baina jende askorekin elkarlanean eta herrian egindako lana da" dio Salak.

AUKERATUTAKO 25 TALDEAK

Punk, rock-and-rolla, street-punk oi! eta punk-rock estiloko taldeak daude diskoak; gaur egungo eta garai bateko taldeak. "Esperimentu bat zenez, inguruko taldeekin hasi ginen lanean; era berean, diskoak musika estilo bateratu bat izan zezan nahi genuen".

Kantuen bilketari dagokionez, zera gaineratu du: "Taldea gazteek ez zuten ezer grabatuta eta horien grabaketak, bada, lokale-

an egin ditugu, geneuzkan tresna justuekin. Beste taldeen abestiak, berriz, euren diskoetatik atera ditugu. Taldeen jarrera onak asko lagundu digu". Abestiak bilduta, Azpeitiako Globo estudioa eraman zituzten, guztien kalitatea berdindu eta garbitzeko.

DISKOA SALGAI

Diskoa dagoeneko 10 euroren truke salgai dago Arrasateko erdiguneko hainbat tabernatan; eta laster, ibarreko hainbat herrita-

koetara ere eramango dituzte. Horrez gain, datozen asteetarako herrian antolatu dituzten hainbat kontzertutan ere salduko dituzte. Baina, Salaren esanetan, herritik kanpora ere izango da diskoa eskuratzeko aukerarik: "Diskoak ahal eta hedapen zabalena izatea nahi dugu; hori delata, herriko taldeek kanpoan egingo dituzten kontzertuetan ere salduko dituzte. Era berean, gaztetxean zein 3.60 aretoan izango diren kontzertuetara ere eramango ditugu".

Aipatutako bideez gain, Internetez ere eskuratzeko bidea dagoela gaineratu du Salak: "Myspace.com-en web orri bat zabaldu dugu. Gune horretan, diskoa eskatu eta, era berean, parte hartu duten talde guztien informazioa jasotzeko aukera dago". Helbidea: www.myspace.com/mondraundergroundsounds da.

EKIMENAREN JARRAIPENA

Diskoak dituen minutu guztiak aprobetxatu dituzten arren, kanpoan gelditu dira talde asko. Atse-dentxo hartu ostean, lehenengo bilduma horrek jarraipena izan dezakeela esan dute; horren erakusle da diskoaren azalean idatzita dagoen *volumen 1*. Talde berriei bultzakada edo laguntza eman nahi dietela gaineratu dute.

Kontzertuen egitaraua

8, egubakoitza

20:00: The Convicts eta Anti Sozial. DAT tabernan.


9, zapatua

18:00: The Motherfuckers eta Last Rebels. Etxoste tabernan.
22:00: The 5 twisters, Aggressive Combat, Special Crew eta Lost Souls. Arrasateko gaztetxean.

29, zapatua

23:00: Los Cretinos eta Material Rechazado. Arrasateko gaztetxean.

DISKOA




1. Des-kontrol > *United to fight*
2. Anti Sozial > *Anti sozial*
3. Ardi Galduak > *Forever young punk*
4. 5 Twisters > *You got feelin'*
5. Enboskada > *Zilegi al da?*
6. Zakarrak > *Salinbrukis*
7. Aggressive Combat > *Our faith*
8. Special Crew > *Feeling the Oi*
9. Never Surrender > *Aurrerape-naren izenean*
10. RIP > *Ultima generacion*
11. Last Rebels > *Gazteak gara*
12. Lost Souls > *Lazy*
13. The Motherfuckers > *Revolution train*
14. Iskanbila > *Jende faltsua*
15. Material Rechazado > *Carceles de asfalto*
16. Jodete > *Borrokan*
17. Los Cretinos > *Oh Marylin*
18. Kañeria 13 > *Sangre en las aulas*
19. Lost Girls > *Asquerosos violadores*
20. Shaggy Daddy & The Troublemakers > *Woman*
21. JFK > *Bizitzaren ostikadak*
22. Arkada Social > *Lloraran*
23. Radio Wings > *Highest mountain*
24. Jukebox > *Accion*
25. Jim TNT > *Noches de bar*

Goienkaria **37.020** irakurle




GOIENKARIA: askogatik, irakurriena*


El Diario Vasco **23.700** irakurle




Gara **5.800** irakurle




Berria **5.300** irakurle



Marca **2.475** irakurle



Noticias De Gipuzkoa **1.800** irakurle




El Pais **990** irakurle



El Correo **220** irakurle



Deia **165** irakurle



Mundo Deportivo **120** irakurle



- GOIENKARIA da Debagoiengan gehien irakurtzen den hedabidea, askogatik.
- Debagoiendarren %67,4k astero irakurtzen du GOIENKARIA.
- 2005ean, 33.825 irakurle zituen GOIENKARIAk Debagoiengan; hortaz, 3.195 irabazi ditu.
- Gipuzkoan 50.000 lagunek irakurtzen dute GOIENKARIA.

Eskerrik asko, irakurle.

*CIES-EK EMANDAKO DATUAK (PORTZENTAJEETATIK ATERATAKOAK)

Goienkaria



Saioen emanaldiak GOITBn



NOIZ > Otsailaren 5ean **ORDUA** > 16:30ean **TALDEA** > Aroa Elortza, Garazi Plazaola, Sara Beristain eta Xabi Zenitagoia **HERRIA** > Bergara **ADINA** > 9 urte **ABESTIA** > *Sarri Sarri.*



NOIZ > Otsailaren 5ean **ORDUA** > 16:30ean **TALDEA** > Ainhoa Lazkano, Ane Zangitu, Maider Uribe eta Saioa Agirre **HERRIA** > Bergara **ADINA** > 12 urte **ABESTIA** > *Zergatik ez.*



NOIZ > Otsailaren 5ean **ORDUA** > 16:30ean **TALDEA** > Ander Arruti, Gorka Egaña eta Ibon Etxabarri **HERRIA** > Bergara **ADINA** > 9 urte **ABESTIA** > *Ilargia.*



NOIZ > Otsailaren 5ean **ORDUA** > 16:30ean **TALDEA** > Alejandra Guzman, Gloria Perez, Iban Moreno eta Iker Gil **HERRIA** > Bergara **ADINA** > 10 urte **ABESTIA** > *Atalaia.*



NOIZ > Otsailaren 5ean **ORDUA** > 16:30ean **TALDEA** > Beñat Vicente, Eneko Kortabarria eta Iker Osinaga **HERRIA** > Bergara **ADINA** > 9 urte **ABESTIA** > *Iñaki.*



NOIZ > Otsailaren 5ean **ORDUA** > 16:30ean **TALDEA** > Eukene Labaka, Ane Motoso eta Paloma Nuñez **HERRIA** > Bergara **ADINA** > 10 urte **ABESTIA** > *Lo egin.*



NOIZ > Otsailaren 7an **ORDUA** > 18:30ean **TALDEA** > Jon Aranzabal, Mikel Olalde, Unai Etxarri eta Xabier Murgiondo **HERRIA** > Oñati **ADINA** > 8 urte **ABESTIA** > *Arratsalde honetan.*



NOIZ > Otsailaren 7an **ORDUA** > 18:30ean **TALDEA** > Garazi Azpeitia eta Helen Carr **HERRIA** > Oñati **ADINA** > 10 urte **ABESTIA** > *Izar iheskorra.*



NOIZ > Otsailaren 7an **ORDUA** > 18:30ean **TALDEA** > Alix Barbero, Irati Barrera eta Izar Biain **HERRIA** > Oñati **ADINA** > 12 urte **ABESTIA** > *Kalanbrea.*



NOIZ > Otsailaren 7an **ORDUA** > 18:30ean **TALDEA** > Amaiur Olalde, Irati Bikuña, Nagore Altuna eta Oihane Rodríguez **HERRIA** > Oñati **URTEAK** > 10 urte **ABESTIA** > *Marea gora.*



NOIZ > Otsailaren 7an **ORDUA** > 18:30ean **TALDEA** > Ainhoa Arrizabalaga, Ane Zubia, Leire Ibarrodo eta Naia Rodríguez **HERRIA** > Oñati **URTEAK** > 9 urte **ABESTIA** > *Gau txori.*

KONTZERTUA > PUNK-ROCKA

Ingalaterrako punkaren bi talde beterano, sasoi bikainean agertokian

UK Subs eta Vibrators taldeek primeran jo zuten egubakoitz gauean 3.60 aretoan

Taldeak izan dituen musikari onenekin taularatu zen UK Subs, betiko abestiak jotzen

IKER BARANDIARAN > ARRASATE

Hirugarren taldea egotea gehiegizkoa zen, eta Total Chaos ez zuen arrakastarik lortu. Soinua kaosa zen eta bonboak ia guztia estaltzen zuten. Punkaren hirugarren belaunaldiko Kaliforniako taldea da, eta gangarrekin GBH dirudien arren, Exploited taldearen arrastoa antzeman genion. Labur aritu ziren.

Jakina zen aretoa beteko zela: UK Subs eta The Vibrators batera ikustea luxua da eta Euskal Herrian kontzertu bakarra zen. Debagoienarrez gain, Bizkaiko Ezkerraldeko eta Gipuzkoako punk zale ugari batu ziren, eta gangar dezente ikusi genituen. Tortura Sistematikako Santiri lapurutako esamoldea erabilita, "erratz buruan eta ibili munduan" ibili ziren punky asko, pogo dantza egin, agertokira igo eta handik salto egiten, baina inor gogaitu barik.



UK SUBS Oso giro ona sortu zuten Ingalaterrako UK Subs talde aitzindariko kideek.

JOSETXO ARANZABAL

PUNKETIK HARATAGO

The Vibrators aspaldian hirukotea dugu, baina ez dute gehiago behar. 77an Ingalaterran sortutako taldea punketik haratago doa. Hala, hippy itxura daukan

Ian Knox Carnochan gitarra jotzaile eta abeslariak gidatutako taldeak rocka zentzu zabalean ulertzen du: punka, rocka, punteoak, rock-and-rolla, pieza ilunagoak eta batez ere melodia

bereziak. Hastapenetako kantuetan oinarritu zuten emanaldia, nahiz eta abesti berririk jo: *Pure mania* klasikoarekin hasi, *Whips and fur*, *Troops of tomorrow* geldo baina intentsoa, eta ezin *Baby*

baby itsaskorra jo barik alde egin. Oso talde trinkoa: Strummerren itxura daukan Finlandiako baxu-jotzailea eta bateria-jotzaile berriketalaria. Pena, 40 minutu aritu zirela.

UK SUBS-EN KLASIKOAK

Etenaldi luzearen ondoren, Charlie Harper *aitajauna*, taldeak izan dituen musikari onenekin: Nicky Garratt gitarran, Alvin Gibbs baxuan eta Jamie Oliver baterian, beste bira zoro baten murgilduta. Beti gerizpean egon arren, taldeak iaz 30 urte bete zituen eta uneoro jotzen aritzeaz gain, rock-and-rolla eta punka batzen maisuak dira. Hauek ere abesti klasikoetan oinarritu zuten ikuskizuna: *Emotional blackmail* iluna, *New York State Police* kañeroa, *Tomorrow girls* itsaskorra, Sham 69ren kutsua daukan *Endangered species*, *Teenagerock-and-rollero*, *Warhead* ikusleekin abesteko eresia, Harperrek hainbeste maite duen reggae apur bat, eta *CID* abesti hita. Punka, rock-and-rolla, indarra, komunikazioa eta oso giro ona ordu eta inguruan.

Bi talde beteranoak oso fin aritu ziren. Bestalde, kontzertuak aurrera egin ahala soinua hobetuz joan arren, ez zen orekatua izan. Ez da sonorizatzeko erraza, baina leku faltagatik soinu-mahaia goiko solairuan jarritz gero, ahalegin handiagoa egin beharko dute.

KONTZERTUA > ARATUSTEAK

Mexikoko giroa ekarri zuten Aratuste-kontzertuak

Bergarako Udal Musika Bandaren eta Orkestra Sinfonikoaren Aratuste kontzertuak Mexikoko musika eta alaitasuna ekarri zituen egubakoitzean

A.G. > BERGARA

Aratusteetako kontzertuak 20. urtea zuen Bergaran, eta bai musikariak, baita ikus-entzuleak ere, gustura ibili ziren. Pilotalekuko beheko zatia beteta egon zen -500 bat lagun-, eta goialdean ere jendea egon zen, denak, Musika Bandaren eta Orkestra Sinfonikoaren kontzertua ikustera, aurten, Mexiko gai zuela.

Lehenengo zatian, *El bueno, el feo y el malo western*-eko Ennio Morriconeren musika jo zuten Bandak. Segidan, Mexikon betebetean sartuta, *Tequila* jo zuten; musikari batzuek, musika tresnen partez, txaloak jo zituzten. Gero, tronpetak izan ziren protagonista, Mexikori dagokion beza-

la. Mikel Maniega tronpeta-joleak bakarkako saio gustagarria egin zuen. Beste une alai bat izan zen Bandako kideek, musikarekin tarteka, *tequila!* oihi egiten zutenean; Aratuste giroa betebetean zegoen ordurako. Lehenengo zati horren bukaeran, Txus Arriarenek adar ingelesa jotzen izan zuen protagonismoa.

ANTZERKIA

Bigarren zatian etorri zen ikusleek espero zuten antzerkitxo. Antzezpena, kantua eta musika uztartu zituzten berriz ere, Mexikoko herrirka baten senar-emazte batzuek zuten eztabaida xelebrean. Leire Ibarzabalek bikain abestu zuen, emaztearen rolean.



KANTUAN Musika, ahotsa eta antzezlan batzen dituen zatiak arrakasta handia izaten du.

JOSETXO ARANZABAL

gazte zerbitzuak

BEKAK

> **Kirola.** Gipuzkoako Foru Aldundia. Kiroletako eta Kirol Ekintzako Departamentua. Gipuzkoa kirol federazioei eta kirol gaien dirulaguntzak emateko 2008ko deialdia. Epea: otsailaren 3a edo urriaren 31a.

EKINTZAK

> **Ken Zazpi.** Kursaal Fundazioa. Ken Zazpi kontzertua eskainiko du Donostiako Kursoalean otsailaren 9an, 20:00etatik aurrera.

IKASTAROKAK

> **Aisialdiko zuzendari.** Gipuzkoako Foru Aldundia. Haur, nerabe eta gazteei buruzko I. Biltzarra: herritar eskubidunak. 2007ko martxoaren 6 eta 7an Kursoalean. Donostia

> **Begirale.** Hezkide Eskola. Jangelako begirale izateko 36 orduko ikastaroa. Epea: otsailaren 29a.

LEHIAKETAK

> **Film laburrak.** KLangreoko Udala. ART NALÓN Film Laburrak. 2008ko urtarrilaren 1ean 36 urte bete gabe ditzuten gazte sortzaileak (zuzendariak edo ekoizleak). Epea: maiatzaren 23a.

> **Martxoak 8.** Arrasateko Udala. Martxoak 8ko XI. kartel lehiaketa. Epea: Otsailaren 15a

LANA

> **Irakasleak.** Ilazki Euskaltegia. Ilazki euskaltegiak irakasleak behar ditu. Epea: Otsailaren 11a.

> **Inkestatzaila.** EAEko Ikerketa Bulegoa. EAEko hiriburuetan eta beste hainbat herritan inkestak egiteko jendea behar da. Epea: otsailaren 15a.

> **Zaintzailea eta etxeko lanak.** Azpeiti inguruan edadeko bat zaintzeko eta etxeko lanetan laguntzeko neska eskaldun arduratsua behar da. Informazio gehiago: www.zureiragarkiak.net.

> **Arrasate.** Arrasateko udalean garapen iraunkorreko teknikari bat kontratatzeko oposizio-lehiaketa. Epea: otsailaren 08a.



ARRASATEKO GAZTE BULEGOA:
Biteri etorbidea 3 • 943 77 00 65
gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net

BERGARAKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:
Kultura etxea • 943 77 91 57
gzerbitzua@euskalnet.net

OÑATI KO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:
Foruen plaza 4 • 943 71 82 57
gazteinformazioa@oinati.net

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Aretxabaleta. Bi solairuko etxebizitza salgai. 648 79 46 77.

Aretxabaleta. Erdigunean teiatupeko etxebizitza salgai. 72 m². Jantzita. 16 metro koadroko garajea. Prezio interesgarria. 659 64 67 38.

Aretxabaleta. Santakurtz kalean 88 metro koadroko etxebizitza salgai. Ganbara eta garaje itxia dauzka. 619 71 70 53 edo 943 76 54 72.

Arrasate. San Andresen 61m²ko etxebizitza berritua salgai. Bi logela, sukaldia, egongela eta komun bat. Terraza eta 12m²ko sotoa ere badauzka. Igogailu berritua. Sartzeko prest. 261.440 euro. 669 14 67 92 edo 943 79 46 08.

Arrasate. Zigorrolan. 48 m², guztiz berritua. Behoko solairua. 183.300 euro. 665 73 25 74.

Bergara. 50 metro koadroko etxebizitza salgai. Labegaraletan. Guztiz berritua. Bi logela, berogailuarekin, eta kanpora begira. Eguzkitsua. 179.100 euro. 635 74 28 84.

Bergara. 90 metro koadroko duplexa salgai. Ibargarai kalean. Erdi jantzita. Estreintzeko dago. 16 metro koadroko garajearekin. Telefonoa: 619 71 70 53 edo 943 76 54 72.

Bergara. San Lorentzokalean 70 m²ko etxebizitza salgai. Berritua eta jantzita; bizi izatera sartzeko moduan. 943 53 22 19.

Elgeta. Etxebizitza salgai. Bigarren solairua. Igogailua du. Hiru logela, sukaldia, komuna eta ganbara ditu. Egoera onean. 946 81 71 97.

Oñati. 70 m²ko etxebizitza berritua salgai. Kale Zaharrean. Bi logela, sukaldia ederra, komuna, egongela argitsua eta trasteleku argi-patioan. Altzari berriei oso ongi jantzita. 270.500 euro. 652 70 12 49.

Oñati. Diseinuko duplexa salgai. 120 m². Kale Zaharrean. Argitsua eta material ederrekin egina. Hiru logela, bi komun, sukaldia, egongela eta estudioa. 676 39 36 93.

Soraluze. Etxe eguzkitsua eta berritua salgai. Erdialdean; hiru logela, egongela, sukaldia eta komuna. 28 miloi pezeta. 687 08 33 00.

103. ERRENTAN EMAN

Aretxabaleta. Errentan ematen dut etxea. Egoera ezin hobean. Eguzkitsua. 943 79 63 49 edo 619 37 51 18.

Arrasate. Etxebizitza errentan ematen da. Bi logela, bi bainu, sukaldia eta egongela. 634 40 37 03.

Arrasate. Zarugalde kalean bi logela, bi komun, sukaldia eta egongela dituen etxebizitza daukat alokagai. Telefonoa: 634 40 37 03.

Bergara. Bolu kaleko etxebizitza baten gela bat ematen da errentan. Sukaldia erabiltzeko aukera. 260 euro. 616 14 72 67.

Bergara. Koldo Eleizalde kale-

IRAGARKI SAILKATUAK

Egubakoitz eguerdia arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

943 25 05 01

sailkatuak@goiena.com

PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU. GAINERAKOAK, 18 EURO (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO. PREZIO BEREZIA: EGUBAKOITZETAKO ETA ASTELEHENEKO GOIENKARIAN BIETAN, ARGITARATUZ GERO 25 EURO (+BEZ).

GOIENKARIAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

OÑATI

Ile apaindegi berri baterako 1. mailako estetika eta ile apaindegirako ofizialak behar dira.
605 70 51 94

an etxebizitza errentan ematen dut. Igogailua eta hiru logela. 652 71 34 15.

Cambrils. Apartamentua ematen dut errentan. Hondartzan bertan. Urteko edozein sasoiarako: Aste Santua, uda; 943 79 63 49 edo 619 37 51 18.

Costa Sancti Petri-Chiclana (Cadiz). Udarako guztiz hornitua dagoen apartamentua errentan ematen da. Leku zoragarria: urbanizazio berria, igerilekua, mini-golfa, lorategiak... La Barrosa hondartzatik oso gertu. 616 14 65 54 edo 678 78 39 10.

Torremolinos (Malaga). Apartamentua alokagai. Bi logela ditu eta hondartzatik 150 metrora dago. Urte osoan, abuztuan izan ezik. Prezio onean. 616 14 72 67.

104. ERRENTAN HARTU

Bergara-Arrasate. Etxebizitza errentan hartuko nuke. Bi edo hiru logelakoa. Urtebeterako, langileendako. 646 04 96 46 edo 626 55 71 79.

Bergara. Hiru logelako etxebizitza hartuko genuke errentan. 639 44 41 20.

Debagoiena. Etxebizitza hartuko nuke errentan, bi edo hiru logelakoa. 617 88 20 93.

105. ETXEA OSATU

Arrasate. Etxea osatzeko pertsona baten bila gabiltza. 943 79 79 38.

2/ GARAJEAK

201. SALDU

Bergara. Garajea salgai San

ARRASATE

Sukaldaria behar da jatetxe baterako.
651 70 93 22

Lorentzon. Telefonoa: 659 63 19 86.

Bergara. Garajea salgai Zubiaurren. 37 m². 606 65 97 82.

202. EROSI

Aretxabaleta. Garajea erosiko nuke Lausitta inguruan. 679 16 41 65.

203. ERRENTAN EMAN

Bergara. Garajea emango nuke errentan Ibargarai kalean. 627 90 74 48.

3/ LOKALAK

301. SALDU

Arrasate. Lokala salgai erdialdean. 665 72 25 12.

303. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Erdialdean lokala ematen dut errentan. 665 72 25 12.

304. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Neska koadrila batek lokal bat alokatu nahi du Arrasaten. 695 74 27 95.

4/ LANA

401. ESKAINTZAK

Arrasate. Emakumea behar da etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. 696 79 43 89.

402. ESKAERAK

Arrasate. Emakume eskaldun-

BERGARA

Pintxotan esperientziadun sukaldaria eta zerbitzaria behar dira.
677 45 23 31

na gertu haurrak zaintzeko. 667 87 99 16.

Bergara. Mutila gertu tabernetan lan egiteko. Lan baime-na daukat. Telefonoa: 699 15 33 16.

Debagoiena. Edozein lan egiteko nuke. Ordenagailuak konponatzen ditut. Aaron. Telefonoa: 659 58 67 69.

Debagoiena. Emakume arduratsua sukaldako lanak edo garbiketa lanak egiteko gertu: tabernetan, etxeetan, baserrietan... Goizeko 7etatik arratsaldeko 7etara. Telefonoa: 650 00 58 48.

Debagoiena. Emakumea edozein lan egiteko gertu. 686 30 67 65.

Debagoiena. Emakumea gertu arratsalde garbiketa lanak egin edo ume eta pertsona nagusiak zaintzeko. Telefonoa: 638 89 98 60.

Debagoiena. Emakumea gertu garbiketa edo beste lan batzuk egiteko. Telefonoa: 678 40 57 04.

Debagoiena. Emakumea gertu ume zein nagusiak zaintzeko, baita etxeak, tabernak eta lokalak garbitzeko ere. Telefonoa: 600 69 92 03.

Debagoiena. Emakumea gertu umeak edo nagusiak zaintzeko, etxeko lanak egin edo garbiketa lanetarako. Luz Eidyth. 943 03 45 06.

Debagoiena. Esperientziadun emakumea gertu taberna eta elkarrekin garbitu, haurrak zaintu edo etxeko lanak egiteko. Telefonoa: 696 11 01 94.

Debagoiena. Neska eskalduna gertu garbitasun lanak egiteko umeak zaintzeko. Telefonoa: 609 00 50 94 edo 943 79 41 71.

ARRASATE

Taberna errentan ematen da erdialdean.
608 77 20 27

5/ IRAKASKUNTZA

501. JASO

DBHko ikasle bati jarraipena egiteko, klase partikularrak emateko prest dagoen norbait behar da. Telefonoa: 688 63 68 43.

Eskoriatza. Pertsona arduratsua behar dut klase partikularrak jasotzeko. Lehenengo Hezkuntzako 5. mailako irakasgaiak. Telefonoa: 646 87 29 32.

Lursaila salgai Arrasaten. 1.000 metro koadro dauzka. Ura dauka, eta 15 metro koadro etxola. Argindarra sartzeko aukera. 945 12 46 22.

Olympus E-410 argazki kamera digitala saltzen dut. ED 14-42 mm eta 40-150 mm-ko objektiboekin. Erabili gabe dago. 650 euro. Telefonoa: 660 80 09 71.

Pendrivea salgai. 8 GB USB 2.0, berria. Telefonoa: 615 74 08 05.

Xenon kita salgai. Automobilendako eta motorrendako balio du. (NH)H7 modeloa. 100 euro. 678 33 05 19.

802. EROSI

Bergara. Lursaila erosiko nuke, borda bat duena. Telefonoa: 635 70 83 47.

806. GALDU

Erantzuna galdu nuen urtarilaren 20an Bergaran, urrezko ezkontza erantzuna. Gizonezko izena dauka, baita data ere: 25-09-99. Telefonoa: 627 64 91 58.

807. AURKITU

Bergara. Urtarrilaren 24an, Euskalduna ehorztetxean jaka bat agertu zen. Telefonoa: 943 76 61 41.

egunean. IAT (ITV) 2009ko martxoaren arte. Diskoak eta transmisioa jarri berriak. Oso egoera onean. 2.100 euro, transferentzia barne. Telefonoa: 699 98 36 71.

Opel Corsa 1.2 SRI 5p, 2002koa, kilometro gutxiarekin. Egoera onean. Telefonoa: 636 71 14 65.

Volvo 460 GLT autoa salgai. Berri-berri dago. 3.000 euro. Telefonoa: 629 91 40 50.

7/ ANIMALIAK

701. SALDU

Cocker ingelesa salgai. emea. Txertoa jarrita, parasitoak kenduta eta mikrotxiparekin. Beltza. 200 euro. Telefonoa: 696 11 01 94.

Setter zuri-beltzak salgai. 3 hilabete dituzte. Txertoa jarrita. 200 euro. Telefonoa: 659 97 79 04.

8/ DENETARIK

801. SALDU

Emua salgai, baita baserriko intxaurrak eta patatak ere. 943 76 64 65.

Errepideko bizikleta salgai. Zeus etxeko. Shimano 105 osagaiak ditu, Mavic Cosmos gurpilak eta aurreko urkila karbonozkoa. Egoera onean. Sigma bc800 abiadura neurgailua opari. 667 08 93 09.

Lursaila salgai Arrasaten. 1.000 metro koadro dauzka. Ura dauka, eta 15 metro koadro etxola. Argindarra sartzeko aukera. 945 12 46 22.

Olympus E-410 argazki kamera digitala saltzen dut. ED 14-42 mm eta 40-150 mm-ko objektiboekin. Erabili gabe dago. 650 euro. Telefonoa: 660 80 09 71.

Pendrivea salgai. 8 GB USB 2.0, berria. Telefonoa: 615 74 08 05.

Xenon kita salgai. Automobilendako eta motorrendako balio du. (NH)H7 modeloa. 100 euro. 678 33 05 19.

Zorionak irabazleoi!

Gaur, otsailak 4, egin den zozketako saridunak azpiko zerrendan datoz. Zu tartean bazaude, zorionak! ASTELEHENEKO GOIENKARIAko harpidedun bazara, adi:

Zeuzan zaitzake hurrengo zozketako irabazleatoko bat!

Saridunak

Otsailaren 9an **ELGETAKO ESPALOIA KAFE ANTZOKIAN** izango den **ANJE DUHALDE**ren kontzerturako lau sarrera. **Irabazle bakoitzari bi emango zaizkio.**
- Izaskun Elkoroiribe Pujana (Bergara)
- Josepi Agirre Altube (Oñati)

Sariak jasotzeko epea: 15 egun

161. zozketako saria

Otsailaren 23an **ELGETAKO ESPALOIA KAFE ANTZOKIAN** "El despertar de los sentidos" antzezlanerako lau sarrera. **Irabazle bakoitzari bi emango zaizkio.**

Harpidedun ez bazara...

Harpidedun egiteko:

943 08 10 50
09:00etatik 18:00etara.

Harpidetza kuota:

38 euro
2008ko urteko kuota

Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

astea GOITBn

Astelehena, 4




> Bergarako Udal Bandaren kontzertua 22:15

Aratusteen gainean Bergarako Udal Musika Bandak eskainitako kontzertua ikusteko aukera izango duzue Goiena Telebistaren eskutik.

13:15 Emisio hasiera.
13:20 Marrazki bizidunak: Calimero.
13:45 Gaurkoak.
13:47 Erreportajea: Ttipi TTapu.
14:15 Eltze beroa.
14:45 Berriak.
15:15 Ilunpean.
15:45 Gaurkoak.
15:47 Berbaire.
16:15 Berbaire.
16:45 Berriak.
17:15 Calimero.
17:45 Gaurkoak.
17:47 Hitz bitan.
18:15 Ikusten.
18:45 Berriak.
19:15 Gertutik.
19:45 Berriak.
20:15 Marrazki bizidunak: Calimero.
20:45 Berriak.
21:15 Harmailatik.
21:45 Gaurkoak.
21:47 Erreportajea.
22:15 Aratuzteetako kontzertua.
23:15 Harmailatik.
23:45 Berriak.
00:15 28 Klipa.
00:45 Emisio amaiera.

Martitzena, 5



> 'Berbaire' gaur, Julen Iriondoren eskutik 21:17

Martitzenero bezala, *Berbaire* saioan izango dira gaurkotasuneko gaiak aztertzen Berbaire saioko solaskideak, Julen Iriondoren eskutik.

13:15 Emisio hasiera.
13:20 Marrazki bizidunak: Horry.
13:45 Gaurkoak.
13:47 Erreportajea.
14:15 Harmailatik.
14:45 Berriak.
15:15 Aratuzteetako kontzertua.
16:15 Eltze beroa.
16:45 Berriak.
17:15 Horry.
17:45 Gaurkoak.
17:47 28 Klipa.
18:15 Musikantoi.
18:45 Berriak.
19:15 Marrazki bizidunak: Horry.
19:45 Berriak.
20:15 Kantari.
20:45 Berriak.
21:15 Teknopolis.
21:45 Gaurkoak.
21:47 Berbaire.
22:15 Animaliak.
22:45 Berriak.
23:15 Ikusmira.
23:45 Gaurkoak.
23:30 Erreportajea.
00:15 Emisio amaiera.

Eguaztena, 6



> 'Jaiak' saio berezia Aratusteen gainean 21:47

Aratusteen gainean *Jaiak* saio berezia eskainiko dute eguaztenean GOITB-n. Arrasaten, Eskoriatzan eta Aretxabaletan izango dira.

13:15 Emisio hasiera.
13:20 Marrazki bizidunak: Calimero.
13:45 Gaurkoak.
13:47 Kantari.
14:15 Eltze berioa.
14:45 Berriak.
15:15 Berbaire.
15:45 Gaurkoak.
15:47 Animaliak.
16:15 Teknopolis.
16:45 Berriak.
17:15 Calimero.
17:45 Gaurkoak.
17:47 Gertutik.
18:15 Harmailatik.
18:45 Berriak.
19:15 Marrazki bizidunak.
19:45 Berriak.
20:15 Zaharrak berri.
20:45 Berriak.
21:15 Ikusten.
21:45 Gaurkoak.
21:47 Aratuzteak 2008.
22:45 Gaurkoak.
22:47 Aratuzteetako kontzertua.
23:45 Gaurkoak.
23:47 Jazmina.
00:15 Emisio amaiera.

Eguena, 7



> 'Kantari' saioan Oñatiko umeen txanda izango da 20:15

Oñatiko ume eta gaztetxoek txanda izango da eguenean *Kantari* saioan. Oñatiko bost talde arituko dira taula gainean abesten eta dantzatzen.

13:15 Emisio hasiera.
13:20 Zaharrak berri.
13:45 Gaurkoak.
13:47 Marrazki bizidunak.
14:15 Aratuzteak 2008.
14:45 Berriak.
15:15 Berbaire.
15:45 Gaurkoak.
15:47 Animalia.
16:17 Teknopolis.
16:45 Berriak.
17:15 Horry.
17:45 Gaurkoak.
17:47 Gertutik.
18:15 Harmailatik.
18:45 Berriak.
19:15 Marrazkiak.
19:45 Berriak.
20:15 Kantari.
20:45 Berriak.
21:15 Erreportajea.
21:45 Gaurkoak.
21:47 Berbaire.
22:15 Musikantoi.
22:45 Berriak.
23:15 Ikusten.
22:45 Gaurkoak.
23:30 Ilunpean.
00:15 Emisio amaiera.

Egubakoitza, 8



> Miguel Madariaga Euskaltel taldeko managerra 22:15

Euskaltel-Euskadi txirrindulari taldeko managerra da Miguel Madariaga lemoiztarra. Zeregin horretan dihardu taldea sortu zutenetik.

13:15 Emisio hasiera.
13:20 Marrazki bizidunak.
13:45 Gaurkoak.
13:47 Kantari.
14:15 Animaliak.
14:45 Albiste aurrerapena.
15:15 Berbaire.
15:45 Gaurkoak.
15:47 Eltze beroa.
16:15 Musikantoi.
16:45 Albisteak.
17:15 Marrazki bizidunak.
17:45 Gaurkoak.
17:47 Ilunpean.
18:15 Aratuzteak 2008.
18:45 Albisteak.
19:15 Ikusmira.
19:45 Berriak.
20:15 Marrazki bizidunak.
20:45 Berriak.
21:15 Erreportajea.
21:45 Gaurkoak.
21:47 Gertutik.
22:15 Ilunpean.
22:45 Berriak.
23:15 Berbaire.
23:45 Gaurkoak.
23:30 Musikantoi.
00:15 Emisio amaiera.

arrasate irrata

FM 107.7

> Bilboko Txorizo lehiaketako gora beherak 10:30

Bilboko baserriko txorizo lehiaketako irabazle Jose Mari Salegi harakina elkarriketatuko dute Arrasate Irratian. Berak kontutuko ditu txorizo onena egiteko dituen sekretuak eta beste hainbat kontu.

Zapatua

10:00 Asteko gainbegiratua.
Ilunpeansaiogan, Exkixu taldeko Alex Sardui; musika kontuak, *Kantaka* saioan; hirugarren adinekoen gainekoak (dieta kontuak, besteak beste) *Zaharrak* berrisaiogan, etabeste.

Domeka

10:00 Asteko gainbegiratua.

Astelehenetik eguaztenera

10:00-12:00 Igo Autobusera Albistegia Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa) Ilunpean Teknoberriak Igo Euriborrera! Kantaka Zaharrak Berri Astearren erreposao Zozketak Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 25 05 05 (*irratia@goiena.com*))
11:55 Arrasateko albisteak, labur.
12:05 Euskadi Irratiko albistegia
12:10 Izarren ordua: abesti ezagunak
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
14:00 Igo Autobusera! (errep.)
17:00, 19:00, 21:00, 23:00 albistegi laburra.

gertutik



Arritxu Barruso
GOITBko kazetaria

"Telebistako aurkezle lanak oso gustura egin izan ditut"

MIREN ARREGI > BERGARA

Duela 26 urte jaio zen Arritxu Barruso bergararra. Giza Zientziak eta Komunizazio ikasketak egin zituen Donostiako Deustu unibertsitatean. Ikasketak amaitu bezain pronto, maletak egin eta Ceutarantz egin zuen, Localia telebista katean lana egitera. Makina bat kontu ekarri zituen bertatik. Egun, Goiena Telebistan egiten du lana, eta *Goienkaria*-n ere idazten du.

Ceutan eman zenuen urte oso bat, Localia telebista katean lanean. Errealitate oso desberdinak al dira?

Lan egiteko modua ez da gehiegi aldatzen, baina errealitatea zeharo desberdina da. Era berean, oso gizar-te interesgarria da eta asko ikasi nuen hango kultura nahasketetatik. Ceutan bizikide dira musulmanak, kristauak, hebrearrak eta hinduak ere bai. Lau kultura desberdin dira, beraz, Ceutan elkarbizi direnak. Hori horrela, albistegiak komunitate horietako albisteekin osatzen genituen. Kale inkestak egitea, adibidez, errazagoa da hemen baino, han jendea irekiagoa da-eta. Aipatzekoa da, bestalde, bertan eman nuen urte osoan ez nuela kale inkestetan emakume musulman bakar baten adierazpenik lortu.

Ceutako Localia telebista katean albistegietako aurkezle izan zinen...

Bai, aurkezle izan nintzen baina, era berean, denetik egin behar izaten genuen; makillatzaile lanak, bideoak prestatu eta aurkezle lanak ere bai. Oso gogoan dut behin nola Ceutako presidentea elkarriketatzea tokatu zitzaidan, zuzenekoan. Urduri nengoen, baina inoiz ahaztuko ez dudana une bat izan zen. Gerora, presidenteak kalean ere gelditzen ninduen. Hura beste mundu bat da.

Urte haren ostean, zer nolakoa egin zitzaizun etxerako buelta?

Alde batetik, pena handia sentitu nuen bertako koadrila, lagunak eta lankideak utzi nituenean. Baina banekien hura nire bizitzako etapa bat zela eta amaiera bat izan behar zuela. Uste dut momentu egokian bukatu nuela aro hura. Dena den, faltan igartzen ditut nire lagun Nordin musulmanaren kafetegiko gosariak. Faltan igartzen dut ere albistegiak aurkeztea eta zuzenekoek duten dinamika edo xarma ere.

asteko hitzorduak

Ikus-entzunezkoa



ARRASATE

> 'Hautsitako leihoa' delako dokumentala emango dute etzi

Beasaindar batek eta bartzelonar batek egindako *Hautsitako leihoa* dokumentala emango dute Arrasateko kultur etxean, 18:30ean. Hiru adingabe kale borrokarekin lotutako delituengatik atxilotzen dituzte.

Zinema



ELGETA

> Woody Allen zuzendariaren 'Match point' ikusteko aukera izango da

Etzi, eguaztena, Espaloia antzokiko zineklub saioan, *Match point* filma emango dute, 21:30ean. Ingalaterrako gizartean Chris gazteak izaten duen igoera eta horrek daukan bukaera latza kontatzen ditu film txalotu horrek.

Jaiak



ARRASATE

> Arrasate Musikaleko bandaren eta ballet taldearen Aratuste emanaldia

Aurten, Kristauen eta Mairuen musikak joko dituzte, eta musikariak mairuz eta kristauez jantzita ibiliko dira kaleetan. Balletko kideek dantza egingo dute. 19:00etan hasiko dute kalejira.

kuxkuxeroa



Aitziber Aranburuzabala

Ibarrekoek,
Tolosako inbidiarik ez

Egubakoitz gauean Tolosa aldean izan nintzen, Aratusteen aitzakian, aspaldiko ikaskideekin sagardotegian afaltzen. Sagardoarekin bustitako txuleta eta bakaila-oa jatera joan ziren ibarreko beste lagun batzuk zeuden aldameneko mahaian.

Zapatu eta domekan, ostera, lanean bazen ere, ibarreko Aratustetan murgilduta ibili nintzen. Gustura jardun nuen; batetik, kameraren objektiboarekin irudi politik ikusten nituelako; eta, bestetik, protagonistek modu onean hartu nindutelako.

"Zorionak ibarreko herri guztietan erakutsitako mozorro eta karrozen egileei!"

Tolosarrek dute Aratustetan fama, hala ere, ibarrekoek inbidiarik ez dutela esateko moduan nago. Mozorrotzea betidanik izan dut gustuko, nahiz eta azkeneko urteetan nirea prestatzeko asti handirik ez dudana hartu; baina aste bukaeran ikusitakoak aurrez prestatzeko astia hartzea merezi duela erakutsi dit. Zorionak, bada, herri guztietan erakutsitako mozorro eta karrozen egile guztiei! Eta zorionak, era berean, jaja antolatzen jardun duten udal eta lan-taldee, aste bukaerako Aratusteen aldeko apustua egitearren.

Dena dela, Aratustek ez dira eguaztenera arte amaituko; bihar ere izango da mozorrotzeko aukerarik. Ahal duenak, bada, aprobeitza dezala, urtean behin dira-eta !

asteburuko albuma



Txan Magoak Bergarako Udal Pilotalekua bete zuten. Atzo eskaini zuen Txan Magoak magia ikuskizuna; hain zuten, *Saio magikoa* izeneko ikuskizuna. Aratuste jaiak aprobetxatuz, umeen gozamenerako antolatutako ekitaldia izan zen. Bergarako Udal Pilotalekura jende asko joan zen magia ikuskitzenera. Etxeko txikiek, eta ez hain txikiek, ederto pasatu zuten Txan magoak eskaini zuen magia eta umorearekin. Txikienak aho zabalik zeuden magiaren nondik norakoak jarraitzen, eta hori argi geratu zen saioko hainbat unetan. Adibidez, koaderno batean margotu zuen pilota benetako pilota bihurtu zuenean, edo papereko arraina benetako arrain bihurtu zuenean.



Santa Ageda neska-mutiek Txino dantza egin zuten. Aspaldiko tradizioari eutsiz, Aretxabaletako Santa Ageda neska-mutiek Txino dantza dantzatu zuten atzo, Aratuste-domeka, Durana kalean. Aurten ere, eguraldiak ez du asko lagundu; baina eguraldi kaskarra ez zen nahikoa izan Aretxabaletako Aratuste giro aparta zapuzteko. Eguerdi partean atera ziren aurtengo kintok Txino dantza egitera. Gero, arratsalde partean, Herriko Plazan, Santa Ageda dantzak egin zituzten. Azken urteetan bezala, bai mutilek eta bai neskek dantzatu zuten plazan. Jende asko animatu zen herriko kaleetan eta plazan egin zituzten dantzak ikustera.



Opil bedeinkapena Bergarako San Blas jaietan. Aste bukaeran ospatu dituzte Bergarako Murinondo auzotarrek San Blas jaiak. Egubakoitzean hasi zituzten jaiak, etxafuego jaurtiketekin. Ondoren, afaria eta erromeria egin zituzten. Zapatuan, mus txapelketa jokatu zuten. Egun handia, baina, atzo izan zen, San Blas eguna. 11:00etan meza eman zuen auzoko ermitan Juan Kruz Mendizabal Santa Marinako parrokoak. Ondoren, San Blas egunean hain ospetsuak diren opilak bedeinkatu zituzten. Irudian ikus daiteke jende asko animatu zela opilak, gailetak, gozokiak edo bestelakoak bedeinkatzera. Tradizioak diotenaren arabera, eztarriko minetatik babesten du San Blasak.



Oinarin dantza taldeak Gervasio Legorburu eta Karmele San Sebastian omendu zituen. Antzuolako dantza taldearen alde egindako lanarengatik eta, batez ere, dantzen alde egindako lanarengatik omendu zituzten atzo Legorburu eta San Sebastian. Ume txiki dantzari bikote batek dantza egin zien omendu biei; gainera, dantza taldeak kapitain makila eman zien hainbat urtetan irakasle izandakoei. San Sebastianek lore sorta ere jaso zuen. Bestalde, Udalak herriko gutuna eta banderatoxa eman zion San Sebastiani; oroigarri berdinak aurretik jasotako omenaldi batean hartu zituen Legorburuk. Jende asko joan zen dantzari antolatutako omenaldi xumera.

ESKER ONA

Jesus
Elkoro Idigoras

'Zaldispé', Felisa Gorosabelen alarguna

Arrasaten hil zen 2008ko urtarrilaren 24an, 95 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkiguteno, i,
eskerrik asko sendikoen izenean.



Arrasaten, 2008ko otsailaren 4an.

ESKELA

Hugo
Roca Gonzalez

Bolivian hil zen, 24 urte zituela.

Batu-Banatu bat egiten du
senideen saminarekin.

Arrasaten, 2008ko otsailaren 4an.

hildakoak

• Bittori Zahinos Mesa

Aretxabaleta, otsailaren 1ean. 54 urte.

• Felisa Elortza Elortza

Oñatin, otsailaren 1ean. 87 urte.

• Concepcion Hidalgo Sanchez

Arrasaten, otsailaren 2an. 72 urte.

• Natividad Amuriza Zubiria

Aretxabaletan, otsailaren 2an. 82 urte.

ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono
honetara eguen eguerdia baino lehen:

943 25 05 01

Eskelaren prezioa: 87 euro.

Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko
GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, 100 euro.

Goienkaria: astero, 45.000 irakurle.



zorion agurrak



ARRASATE
Anartz Eraña eta Ainhoa Sagasta
Anartzek (goian, ezkerrean), otsailaren 3an, 5 urte, eta Ainhoak (goian, eskuman), urtarrilaren 25ean, 26 urte. Zorionak eta patxo handi bat etxeko guztien partetik, bereziki, Naiara, Arantza eta Jonen partetik.



OÑATI
Juanita Arabaolaza Egaña
Urtarrilaren 28an, 73 urte. Zorionak eta patxo haundi bat familixa osuaren partetik.



DEBAGOIENA
Fausto Berazadi
Urtarrilaren 30ean, urtebetetzea. Zorionak eta besarkada bat. Goienako lankideak.



OÑATI
Alaia Maiztegi
Urtarrilaren 30ean, 23 urte. Zorionak, guapixima! Examiñak bukaketan dozunian zelebrauko dogu. Zure primian eta lagunen partetik.




ARRASATE
Ane Barrenetxea Garcia
Urtarrilaren 30ean, urtetxo bat. Zorionak eta patxo handi bat etxeko partetik.



ARRASATE
Jon Aiesa
Urtarrilaren 30ean, 8 urte! Zorionak familia guztiaren partetik!



ARETXABALETA
Edurne Barrutia
Urtarrilaren 30ean, urtebetetzea. Berandu bada ere, zorionak! Laztan handi bat lagunen partetik.



ARETXABALETA
Kepa Iturbe Etxandia
Urtarrilaren 31n, urtebete. Zorionak etxeko guztion partetik, eta Lore eta Marenen partetik, patxo handi handi bat.



ARETXABALETA
Ainara Zugasti Santamaria
Otsailaren 4an, 6 urte. Zorionak etxeko guztion izenean, eta patxo handi bat lehengusinen partetik.



ARRASATE
Txomin Frutos
Otsailaren 4an. Zorionak, pototo! 5 urte ja, ondo segita patxo pila etxekuen partetik.



ANTZUOLA
Lierni eta Unax Errasti
Otsailaren 4an, Liernik, 6 urte, eta 15ean, Unaxek, 3 urte. Urte askotarako, amatxo eta aitxatxon partetik.



ARRASATE
Elene Loiti
Otsailaren 5ean, urtetxo bat! Zorionak, matraka! Patxo handi bat guztion partetik, ta Imanolen partetik, milaka patxo.



BERGARA
Hodei Murgizu Rodriguez
Otsailaren 5ean, 3 urte. Zorionak eta patxo bat familiako partetik.



BERGARA
Joseba eta Miren Carnicero
Otsailaren 6an, 10 urte. Zorionak eta muxu handi bat etxeko partetik!



ARETXABALETA
Esteban Kens
Otsailaren 6an, urtebetetzea. Zorionak, osaba, eta patxo handi bat. Aupa Kuba!




BERGARA
Maite Zabaleta
Otsailaren 7an. Zorionak eta patxo haundi bat zure lagun partetik. Ondo pasau eguna ta egongo gatxin!



BERGARA
Andoni Gallastegi Agirre
Otsailaren 7an, 12 urte. Zorionak eta laztan bat gurasuen partetik.



BERGARA
Gorka Kortabarría
Otsailaren 7an, 10 urte. Zorionak mutil haundi! Muxuak eta ondo pasa eguna, familiako denon partetik.



ANTZUOLA
Pepita Urriategi Agirrezabal
Otsailaren 8an, 90 urte. Zorionak eta urte askotarako, ahizpa eta iloben partetik, orain bezain alai jarraitu.



OÑATI
Maider Molinero
Otsailaren 8an, 3 urte. Zorionak, printzesa, etxeko danon partetik. Muxu potolo-potolo bat!



OÑATI
Maddi Arlanzon
Otsailaren 9an, 4 urte. Zorionak guapixima! Ondo pasa ospakizunean. Aitaxo, amatxo eta Anjeren partetik.



BERGARA
June Alberdi
Otsailaren 9an, 8 urte. Zorionak eta patxo bat familiako partetik.



OÑATI
Oier Aldekoa
Otsailaren 11n, 3 urte. Zorionak eta muxu handi handi bat amatxo, aitaxo eta Helenen partetik.

ZORIONAK!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak ASTELEHENEKO GOIENKARIAren bidez!
Ekar ezazu bere argazkia, eta emaitza ezusteko ederra!

jaiotakoak



Nahia Garro Arana
Arrasate > 3,370 kilo. Urtarrilaren 31n. Gurasoak: Andres (Arrasate) eta Izaskun (Arrasate). Argazkian, Nahia jaioberria, aitaren besoetan.



Hodei Garitaonandia Uriarte
Arrasate > 3,750 kilo. Urtarrilaren 30ean. Gurasoak: Gaizka (Arrasate) eta Lorea (Arrasate). Argazkian, Hodei jaioberria, kumatxoan lo.

PARTE HARTU

Kintadak, aste bukaerako ospakizunak, ezkontzak, txutxu-mutxuak, bazkariak, jaiak...

Tarte hau zure txokoa da, irakurle.

Ekar ezazu argazkia eta azalpenaedo bidali honako helbidera: astelehena@goiena.com

BABESLEA

IKUSI MAKUSI

Umeen paradisia

Lazarraga 4 OÑATI 943 08 23 32

Migel Madariaga > Euskaltel-Euskadiko managerra

"Begoñako Amaren irudia aldean daramat"

IKER BARANDIARAN > ARRASATE
Miguel Madariaga lemoiztarra Euskaltel-Euskadi taldearen sortzailea da, eta managerra ere, orain dela 15 urte taldea sortu zutenetik.

Ume bihurri samarra zinen...

Beno, badakizu, baserrikoak gara, eta guk beti ikasi behar dugu gure burua defendatzen. Beste modu baten hazitakoak gara, eta beharrak hala eskatzen digu; horregatik, apur bat bihurria nintzen, bai.

Asteburu guztietan aitaren bizikleta hartzen zenuen?

Bai; etxean, bakarra zegoen, eta, asteburuetan, aitak uzten zidan. Bizikleta barik, ez zegoen kanpora joaterik. Formal ibili behar izaten nuen, eta baserriko lanak egin behar. Ganadua eta guzti geneukan, eta gainera, aitak osasun eskasa zuen. Are gehiago, gazte hil zen bera, eta anaiok eta amak lan handia egin genuen.

Zure lehenengo lana itsasoan izan zenuen?

Bai; 16-17 urterekin, ikasteko-tan nengoen, baina urduri jarri

nintzenez, karga-ontzi baten lanean hasi nintzen, fruta garraiatzen. Kanariar uharteetan, Barzelonan eta Alacanten ibili ginen. Hiru urte egin nituen han, soldadutzara joateko deitu ninduten arte.

Noiz konturatu zinen bizikletak garrantzia handia izango zuela zure bizitzan? Buru-belarri sartuko zinela?

Barkuan lanean eta soldadutzan nengoela, uneoro ibili nintzen pentsatzen hemengo txirrindularitzak bultzada behar zuela.

TEST-A

Herria: Lemoiz. **Adina:** 63 urte. **Ikasketak:** Oinarrizkoak. **Zaletasunak:** Pilota, futbola eta herri kirolak ikustea. **Bete duzunamets bat?** Talde profesional bat heldu den lekura heltzea. Hori ikusteak asko betetzen nau. **Eta zer amets daukazu betetzeko?** Euskal Herriko txirrindularitzaren maila igotzea. **Kolore bat?** Laranja esanahi handia du niretzat, baina berdea da niretzat gustukoena. Eta janzteko, urdina.

Eta hala, 1966an soldadutza bukatu, eta 1967an horretan hasi nintzen, Mungia taldean lanean. Eta ordutik, gaur egunera arte.

Saso hartan, taxi gidari ibili zinen...

Bai, irtenbide bat zen, eta Mungian plaza lortu nuen. Makina bat txirrindulari eraman nituen lasterketetara; eta harreman asko egin nituen.

Zelan gogoratzen duzu zentral nuklearraren proiektua, eta garai hori?

Proiektu horren berri izan genuenean, ez genekien zer egin behar genuen, ez genuen gauza onik espero... Azkenean, base-ria saldu eta amarendako eta anaia txikiarendako etxe bat erosi genuen Mungian.

Gainean daramazu Begoñako Ama Birjinaren irudia?

Bai, beti eramaten dut irudia aldean, ez naiz hori barik irteten; eta, are gehiago, aukera daukadan domeka guztietan, Begoñara bertara joaten naiz, meza entzuterara.



BIZIKLETA Euskal txirrindularitza da Madariagaren ardura nagusia.

I.B.

ai, ene!



Bederatzi lagunendako bizikleten biribila

Bizikletan ibiltzea eta lagunartean kirola egitea gustuko baduzu ondo etorriko zaitzue bederatzi lagunendako prestatutako *multizikleta* bat. Hori bai, ez zara oso urrutik helduko.

<http://www.robertwechsler.com>

biharamuna

Marijo Deogracias

Mozorro-zomorro


Egun koloretsu eta magikoa. "Hori Errege Magoen etorreran esatea, tira...", esan nion amari. ETBleko kazetari batena da esaldia, Inauteriei buruzko albiste baten kontura. Aita, **Antonio**, *drag queen* mozorrotu zen atzo; amak, **Julik**, **Alaska** izatea erabaki zuen zapatuan. Ni, berriz, mendigoizale atzo Gorbealara bidean (ez ginen gurutzera ailegatu; eguraldiak ez zigun lagundu). **Marijose Lasari** entzun nion Euskadi Irratian: "Egunero joaten gara mozorrotuta". Baliteke, baina asteburuon zuetako askok mozorroz aldatzea erabaki duzuelakoan nago. Horixe baitira Karnabalak: inon azalean sartzea, egun baten sikan. Barikuan Gerni-



kan **Torrente**, ber bost, ikusi genuen. **El Faryren** zinta eta guzti! Ze piura! Zerana moduan, **Rouco Varela**ren bozeramailearena moduan. Disfraz hori aukeratu duenak koplak entzungo zituen! **Arzalluzi** COPEko **Jimenez Losantosek** ere botako dizkio **Arnaldo** bisitan joatearren. Dena dela, eta txutxumutxuetan sartuta, primerakoa: **Sarkozy-Bruni** ezkonberriena. Zorionak-edo, bikote! Baina eztei bidaia ezkontza aurretik egin duzue, Frantziako Errepublikari kasu egi-tea tokatuko da orain, ala?

Europar, Serbian zehazki, hau idazten ari naizenean, hauteskundeetan dira (guk martxoaren 9an dugu hitzordua). Ziur ez direla **ZP-Raxoi** enkante sisteman ibili!

eguraldia



MINIMOA

+6

MAXIMOA

+11

Lainoan eta euri giroan eman-gu egun osoa gaur. Eguna-ren lehenengo partean, zaparrada tartekatua botako ditu.

www.euskalmet.euskadi.net

IKER

SUKALDEAK:

ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43

OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48

BAINUAK:

ARRASATE: Zarugalde 52 / 943 79 99 42

FAGOR

